8

Hezkuntza baliabideak

ALBOAN

Garapenerako munduko elkarte bat sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Saiburuordetza
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Objetivos de Desarrollo del Milenio

Milurtekoko Garapen Helburuak

Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 koadernoz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (komikiak, posterrak, ikerketak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

Hezkuntza baliabideak ALBOAN

0. Milurtekoko Garapen Helburuak:
Aldaketarako tresna edo garapen gaingabetua?
Helburuak baino, garapenerako eskubidea. (2008)

1. Zero Pobrezia.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

2. Lehen Hezkuntza guztiontzako.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

3. Genero-berdintasuna sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

4. Haurren heriotza-tasa murriztea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

5. Amen heriotza-tasa murriztea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

6. HIESa justiziaren ikuspegitik.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)

7. Ura: ondasun publikoa.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)

8. Garapenerako munduko elkarte bat sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat (2008)

Garapenerako munduko elkarte bat sustatzea. Helburu bat baino, garapen eskubide bat

Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Noemí de la Fuente, Mary Tere Guzmán, Miguel González, Rita Santamaría eta ALBOAN

Data: maiatza 2008

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-1090/08

ISBN: 978-84-612-4031-4

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

Garapenerako munduko elkarte bat sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat.
Noemí de la Fuente, Mary Tere Guzmán eta Miguel González 5

I. Sarrera 5

II. Garapenerako laguntza, gehiago eta hobea 7

III. Nazioarteko bidezko merkataritzaren alde 19

IV. Kanpo-zorra kitatzea 32

V. Herritar antolatuak: haien eskuetan badago, zure esku dago 39

Bibliografia 41

Eztabaidarako eta ekintzarako galderak 45

Honduras: Ura eta ingurumena:
herri baten zori berria eraikitzen ari diren iturriak.
Rita Santamaría 47

Glosarioa 51

Garapenerako munduko elkarte bat sustatzea. Helburu bat baino, garapen eskubide bat.

*Noemí de la Fuente, Mary Tere Guzmán eta Miguel González**

I. Sarrera

2000ko irailean, "Milurteko gailurra" zeritzon hartan elkarturik, XXI. mendean nazioarteko harremanak gidatzeko arau nagusiak adostu zituzten 189 herrialdetako agintariek Nazio Batuetako LV. Batzar Orokorrean. Zenbait gairi buruz aritu ziren; besteak beste, bakeaz eta segurtasunaz, garapenaz, pobrezia errotik kentzeaz, giza eskubideez eta demokraziaz, Afrikaren behar bereziez, Nazio Batuetako Erakundearen (NBE) sendotzeaz.

Ebazpen horretako konpromiso orokorrak oinarri harturik sortu ziren Milurtekoaren Garapen Helburuak (MGH). 2015erako, zortzi helburu lortu behar dira. Horietariko bakoitzak bere xede eta adierazleak ditu, zenbakarriak, betetze-maila neurtzeko. Nazioarte osorako dira zortzi garapen-lehentasun horiek.

Lehenengo zazpi helburuen asmoa da pobrezia, gosea, analfabetismoa eta milaka pertsonek jasaten dituzten gaixotasunak ezabatzea eta genero-berdintasuna eta ingurumen-jasangarritasuna bermatzea. Premien arabera taxutu dira zazpi helburu horiek. Hala ere, eskubideen ikuspegitik, elikadura, heziketa- eta osasun-eskubidea, ur edangarria izatekoa, lan duina izateko eskubidea... lehenetsi beharko genituzke.

* Noemí de la Fuente, Mary Tere Guzmán eta Miguel González ALBOANeko *Eragintza politikoa eta sareak* arloa osatzen dute.

Zortzigarrenean, berriz, gainerako zazpiak betetzearren behar diren baldintza politikoak sortzeko konpromiso politikoak daude. Herrialde bakoitzeko gobernuak finkatu behar ditu helburuak iristeko agenda eta baliabideak, gizarte zibilarekin partaidetzarekin. Hala ere, ez da aski gobernu bakoitzaren ahalegina. Globalizazio-prozesuak nahikoa frogatua du herrialde boteretsuenen erabakiek, garapen-sistemek eta bizimoduek eragina dutela gainerakoen garapenean. Beraz, nazioarteko politika koherenteak finkatu behar dira, herrialde guztien garapena bermatzeko.

Nazioarteko laguntza, kanpo-zorraren kitapena, merkataritza-harreman bidezkoak, gazteen enplegua, garapen bidean diren herrialdeetako oinarrizko botiken eskuragarritasuna eta kostu txikia, eta informazio- eta komunikazio-teknologien onurak dira 8. MGHren gaiak. MGHak iristeko, nazioarteko aliantzak proposatzen ditu; horregatik, "garapenaren aldeko nazioarteko elkartea" deitzen zaio.

> Gaur egungo txiro gehienen pobrezia ez da soilik bizitzako gertakari bat, baizik eta pertsona eta erakunde boteretsuek lehen eta orain hartutako bidegabeko erabakien ondorio.

Beren lorpenak neurtzeko xede eta adierazle batzuk dituzte MGHek (adibidez, 1990 eta 2015 artean, gosea jasaten dutenen kopurua erdira murriztea). Aldizka, estatuek erek, NBEak eta beste zenbait erakundek lortutako aurrerapenei buruzko txostenak aurkezten dituzte. Horri esker, aurreikusitako politika eta neurriak berrikus daitezke, 2015erako beteko direla bermatzeko. Hori da MGHen bertute nagusienetako bat.

Haatik, 8. helburuari dagokionez, xedeak eta adierazleak ez dira erabilgarriak: adierazle zehatzak ezarri diren arren, xedeak –horien jardueraren berri eman behar dute– orokorrak dira eta ez dute ez erreferentzia-eperik ez lortu beharreko gauzatze-mailarik ezartzen. Hori dela eta, oso zaila da haien garapenaren jarraipena egitea eta herrialde bakoitzari edo nazioarteko erakundeei erantzukizunak eskatzea dagozkien betekizunak direla eta. Deigarria da konpromiso horiek izatea herrialde aberatsenei argien eragiten dietenak. Gabezia hori dela eta, bereziki beharrezkoa da gizarte zibilak estatuen garapen-politikak zaintzea.

Gardentasunaren eta kontu-ematearen alorreko asimetria hori bidegabea da herrialde pobreekiko, eta ez dator bat 8. MGHren espirituarekin: garapenaren aldeko mundu-elkarte bat sortzea. Elkarri kontuak emateak informazioa eta erantzukizuna bi norabideetan eta baldintza berdinetan joatea eskatzen du. Herrialde txiroek ere tresnak eduki behar lituzkete herri aberatsei eskatzeko munduaren garapenean dagozkien erantzukizunak bere gain har ditzate. Horregatik, beharrezkoa da 8. MGH zehatzagoa izatea eta xede eta data jakinak ezartzea. Izan ere, hein handi batean, hori bera da beste zazpi helburuak betetzeko giltza.

8. MGH 8a gauza askori buruz mintzo da. Horietako zenbait kontraesankorrak ere iruditu dakizkiguke. Herri aberatsek euren garapen-agenda ezartzeko nahia islatzen duelako gertatzen da hori. Hala eta guztiz ere, argi ikusten dira hiru gaiok: garapenerako laguntza gehiago eta hobearen premia, kanpo-zorra lehenbailehen kentzeko beharra, eta nazioarteko merkataritza herrialde txiroenen giza garapenaren zerbitzura jartzeko premia, eta ez enpresa transnazional handien interesen nahietara. Hiru gai horien ondorio den beste bat ere bada, 8. MGHan ez dagoena baina guri oinarrizkoa iruditzen zaiguna: herri txiroen interesak demokratikoago islatzen dituen nazioarteko ordena baterantz joateko beharra. Azkenik, gogoan izan herritarren antolakuntza ere ezinbestekoa dela gai horiei dagokienez. Aipatutako hiru gai horiei erreparatuko diegu: laguntza, merkataritza eta zorra. Atal bakoitzaren amaieran, gai bakoitzari buruzko informazioa eta kanpainak ageri dituzten zenbait web orri dituzue.

II. Garapenerako laguntza, gehiago eta hobea

2002ko martxoan, 183 herritako ordezkariak bildu zituen konferentzia bat antolatu zuen NBEk Monterreyn, Mexikon. Helburua zen garapenerako finantzaketaren arazoari aurre egiteko modua aurkitzea (MGHak barne). Konferentzia horretako azken ebazpenari “Monterreyko Ituna” izena eman zaio. Nazioarteko garapenari dagokionez egun dagoen ortodoxiaren isla zehatza da dokumentu hori. Garapen-estrategia propioak ezartzeko eta lekuko baliabideak sortzeko herrialde bakoitzak duen protagonismoa aitortzen du. Era berean, mundu osoan baliabideak mobilizatzeko neurri bateratu eta koherente batzuk hartzeko beharra ere adierazten du; besteak beste: atzerriko zuzeneko inbertsioa, nazioarteko merkataritza, kanpo-zorra eta garapenerako laguntza ofiziala. Baina, garapenerako zenbateko laguntza ematen diete herri txiroei herri aberatsek? Laguntza hori, gehien behar duten talde eta herriei ematen zaie? Nahikoa kalitate du laguntza horrek? Atal honetan, galdera horiei erantzuten saiatuko gara.

Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO): zenbatekoa

1970an, XXV. Batzar Orokorrean, ekonomikoki garatuak dauden herriei dei egin zien NBEk BPGren % 1 horren aurreratuak ez dauden herriak garatzeko eman zezaten. 1980rako, ekarpen publikoak gutxienez % 0,7ra iritsi behar zuen. Nahiz eta konpromisoa proposatutako epeen barnean ez bete, % 0,7a emateko gomendioak gaur egun arte iraun du, eta, azkeneko urteotan berrindartu egin da, Monterreyko Konferentziaren ondoren eta Milurteko Garapenaren Helburuak direla eta. Gaur egun, Hegoaldeko herriei zor zaienaren sinbolo bihurtu da % 0,7a.

Bost herrialdek bakarrik betetzen dute konpromisoa: Norvegia, Suedia, Luxemburg, Danimarka eta Herbehereak. Europar Batasunak, NBEren gomendioari berratxiki nahirik edo, egutegi berria ezarri du, erdibideko helburu batzuekin, 2015ean % 0,7ra iristeko.

2002ko martxoan, Bartzelonan Europar Batzordeak egindako bileran, Monterreyko Konferentzia jomugatzat hartuta, EB-15-ek[1] hitz eman zuen estatu bakoitzak GLOa BPGren % 0,33ra igoko zuela 2006rako, urte horretan bertan denak batera (15ak elkarrekin) % 0,39ra irits zitezen. Ondoren, 2005ean, helburu berriak ezarri zizkien EBk bere estatuei: GLO bateratua 2010ean % 0,56ra igotzea, eta, 2015erako, % 0,7ra.

EBren konpromisoarekin batera, zenbait herrialdek bere agenda propioak ezarri dituzte. Belgika, Irlanda, Frantzia, Espainia eta Erresuma Batuak 2015a baino lehenago % 0,7ra iristeko konpromisoa hartu dute. Zehazki, José Luis Rodríguez Zapateroren gobernuak 2008rako % 0,5era eta 2012rako % 0,7ra iristeko konpromisoa hartu du, agintean segitzekotan betiere. Hala ere, 2006an EBk bere estatuei egindako gomendioaren azpitik geratu zen Espainia (% 0,32).

[1] Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Espainia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Portugal, Erresuma Batua eta Suedia.

1. koadroa. Konpromisoak			
	EB-15 (batera)	EB-15 (banaka)	Espainia
2006	% 0,39	% 0,33	
2008			% 0,5
2010	% 0,56	% 0,51	
2012			% 0,7
2015	% 0,7	% 0,7	

Iturria: guk egina.

Dena dela, laguntzari buruzko datu horietan badira zenbait alderdi eztabaidagarri. GLOtzat zer hartu eta zer ez eztabaida bizia dabil nazioartean. Hiru gairi buruzkoak dira desadostasunak: zorraren kitapena, Europara heltzen diren errefuxiatuen harrera-kostuak eta ikasle atzerritarrentzako bekak (EUROPEAN NGO, 2005). Zorrari dagokionez, aurrerago aztertuko dugu gaia; dena den, nabarmendu behar da Monterreyko Itunak hau gomendatu zuela: "Herri emaileek neurriak hartu behar lituzkete zorra arintzeko ematen dituzten baliabideek GLOek garapen bidean dauden herriei ematen dizkietenak ez murrizteko". Errefuxiatuen harrerari eta bekei dagokionez, ez dago lotura garbirik Europan egiten den gastuaren eta pertsona horien jaioterritako garapenaren artean. Hortaz, zenbateko horiek GLOetan ez sartzea justifikatuta dago.

Kontzeptu horiek kentzen baditugu, EB-15en GLOa ia % 30 jaisten da, eta GLO/BPG ratioa % 0,31 inguruan geratzen da, 2006an ezarritako erdibideko xedearen azpitik. Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) Garapenerako Laguntza Batzordeak (GLB), zorraren kitapena zenbatzea onartzen badu ere, horrek sortzen dituen desbideratzeak islatzen ditu. Azkeneko Garapenerako Lankidetzari buruzko Txostenaren arabera[2], EB-15eko estatuetako GLOen hazkundea % 28,5 izan zen 2004 eta 2005 artean; baina zorra arintzeko eragiketak kenduta, benetako hazkundea % 5era jaisten da. Aipatzekoa da herrialde batzuek batezbestekoaren gainetik igo zutela beren GLO, baina, datu errealak aztertuta, jaitsi egin zen GLO aurreko urtearekiko.

[2] ELGE Development Co-operation Report 2006.

Benetako laguntza, herri txiroenen garapena finantzatzeko-dirua, urteko 30.000 milioi dolar besterik ez da, hau da, laguntza osoaren % 40. Administrazio-kostuak, laguntza teknikoa, zorraren arintzea kontabilizatzea, horren behartsuak ez diren baina kokapen geografikoagatik garrantzi estrategikoa duten herriei ematen zaien laguntza..., horiek dira gaur egungo laguntzaren % 60 baino gehiago benetako eta premiazko garapen-premietarako (MGHak betetzea, adibidez[3]) ez erabiltzearen arrazoia.

GLBren[4] azkeneko titularrak dio garapenaren laguntza % 5 jaitsi zela 2005–2006an, eta 103 mila milioi eurotan geratu zela. Jaitsieraren zergatia 2005ean GLOak izandako hazkundea dela jotzen da, Nigeriak eta Irakek zorra kitatzearen ondorioa, hein handi batean. Era berean, 2007an laguntzaren zenbatekoek jaisten jarraituko dutela uste da, zor-kitapenaren jaitsierarengatik. Kontua da denak ez duela balio. Laguntzaren zenbatekoa handitzeko konpromiso publikoak ezin dira item berriekin orekatu gero. Kasu batzuetan, garapenerako garrantzitsuak izan daitezke, baina pobrezia gutxitzeko baliabide berririk ez dute sortzen.

Gizarteko sektore premiadunenei ematea laguntza: 20/20 ekimena

8. MGHko 31 adierazlea oinarrizko zerbitzu sozialetarako ELGEko emaileen alde biko GLO osoaren proportzioari dagokio baina ez du iritsi beharreko ehunekorik zehazten.

NBEk antolatutako gailur-kopuru handia izan zuen ezaugarri 90eko hamarkadak. Garapena eta pobreziaren ezabatzea izan ziren gailur haietako gai nagusiak. 1995ean, Gizarte Garapenerako Mundu Gailurra egin zen Kopenhagen. Herri laguntza-emaile eta -hartzaile guztiek nazioarteko estrategia bat adostu zuten gailur hartan: aurrekontuen (GLO eta gastu publikoa, hurrenez hurren) % 20 erabiltzea oinarrizko gizarte-zerbitzuak bermatzeko: osasuna –ugalkortasun-alorra barne–, hezkuntza, ura eta saneamendua, elikadura... eta zerbitzu horiek emateko gaitasun instituzionala. Lehen zazpi MGHak lortzeko izugarrizko bultzada litzateke hori.

---

[3] KAPOOR, S. (2006), *Los recursos que fluyen de los pobres a los ricos,* Social Watch.

[4] *Development aid from OECD countries fell 5.1% in 2006,* www.oecd.org/document/17/0,2340,en_2649_33721_38341265_1_1_1_1,00.html

Proposamen horrek –Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) sortua, 20/20 Ekimena deritzona–, garapen jasangarria bermatzeko pertsonen oinarrizko gaitasunetan inbertitu behar dela adierazten du. % 20a, berriz, orientazio moduko batezbestekoa da, herrialde bakoitzak bere behar eta egoeraren arabera doitu beharrekoa. Herrialde laguntza-hartzaileen aurrekontuek inbertsio sozialari lehentasuna ematea bermatu nahi du ekimenak (gastu militarrak eta kanpo-zorra ordaintzen erabili beharrean), baita nazioarteko lankidetzaren parte bat horretarako erabiltzea ere. Konpromiso horrek, dena dela, ez du esan nahi aurrekontuen gainerako % 80 ere pobrezia murrizteko ikuspegiarekin erabili behar ez direnik. Gaur egun GLOaren % 10-12 bakarrik erabiltzen da oinarrizko zerbitzu sozialak finantzatzeko, kalkuluen arabera.

Gehien behar dutenei ematea laguntza: Gutxien Aurreratutako Herriei eta Afrikari

8. MGHaren 13. xedeak eta 33. adierazleak gutxien aurreratutako herriak (GAH)[5] aipatzen dituzte bereziki. Berriro ere, xedea ez da adierazlearen bitartez zehazten (GAHri zuzendutako NRGren ehunekoa). Hala ere, emaileek Monterreyn berretsi zuten konpromisoa erreferentziatzat erabil dezakegu: BPGren % 0,15 eta 0,20 artean ematea GAHei.

GLBren datuen arabera, diru-sarrera urriko herrialdeentzako laguntza[6] GLOren % 60tik (1970) % 67ra igo zen 2001-2005 epean (IDA, 2007). Beraz, GLOk GGHei ematen dien laguntza oraindik ere BPGren % 0,1 inguru litzateke[7].

Saharaz hegoaldeko herrialdeetan, berriz, are kezkagarriagoa da egoera. Laguntza-proportziorik handiena jasotzen duen eskualdea bada ere, 1995ean GLO osoaren % 29 jasotzetik 2001ean % 24 eskuratzera pasatu zen (VANDEMOORTELE et al., 2003).

---

[5] Ikusi glosarioa. Multzo horretako herrialdeen zerrenda ikusteko, begiratu hemen: www.un.org/special-rep/ohrlls/ldc/list.htm

[6] Diru-sarrera baxuko herrialdeak dira atalase jakin batetik beherako per capita diru-sarrerak dituztenak (adibidez, 2006ko datuetan, Munduko Bankuak 905 dolarren jarri zuen atalase hori). GAHk, beste herrialde batzuekin batera, talde honetan daude.

[7] Diru-sarrera baxuko herrialdeentzako funtsen erdia baino gutxiago jasotzen dute GAHek, hain zuzen ere, GLOaren % 28 inguru. Kontuan izanda 2005ean GLBko herrialdeen GLOa guztira Errenta Nazional Gordinaren % 0,33 izan zela, ondoriozta dezakegu GAHei zuzendutako GLOa oraindik % 0,1 baino askoz txikiagoa dela.

MGHen bilakaerari buruzko berrikuspenek egiaztatu dute Saharaz hegoaldeko Afrikak 2015ean helburuak ez lortzeko arriskua duela eta 1990etik txarrera egin duela hango egoerak. Afrika eta pobreziaren kontrako borroka lehentasunezko gaiak izan ziren 2005eko ekainean G-8ak izandako gailurrean. Munduko zortzi herririk boteretsuenek 2010erako laguntza bikoizteko konpromisoa hartu zuten, hau da, berrogeita hamar mila milioi dolarreko igoera, erdia Afrikarako[8]. Dena dela, konpromiso horiek ezerezean geratzen dira. Munduko Bankuko lehendakariak berak 2007ko apirilean aitortu zuenez, "% 2 besterik ez zen igo Saharaz hegoaldeko Afrikarako laguntza 2006an (...) Bestalde, herrialde gutxi batzuetan kontzentratu da laguntza. Laguntza gehigarria ondo erabiltzeko moduan diren Saharaz hegoaldeko Afrikako herriak ez dira etekinik jasotzen ari oraindik" (GARAPENERAKO BATZORDEA, 2007).

Europako Batasunak eta espainiar gobernuak, Afrikatik gertu izanik, kontinente horrekiko lankidetza-estrategia propioak ezarri dituzte. MGHak lortzera eta pobreziaren kontrako borrokara bideratuta daude horiek, baina ez dute garapen-politika eta beste interes ekonomiko, politiko eta estrategiko batzuen (merkataritza-harremanak, legez kanpoko immigrazioaren kontrola...) arteko koherentzia bermatzen[9].

Afrikarako Batzordeak proposatutako laguntza-igoera bereganatzeko Afrikak ahalmenik baduen eztabaida sortu da. Laguntzak herri hartzailearen BPGren % 8 gaindituz gero laguntzaren etekinak gutxitu egiten direla diote zenbait adituk. Beste batzuek diote, aldiz, laguntza beregana dezakeela, baina, horretarako, laguntza kudeatzeko metodo tradizionalak aldatu egin behar dira.

Garapena finantzatzeko iturri berriak?

Azken hamarkadetan garapenari buruz hartutako konpromisoak betetzeko, (MGH barne) GLO handitu egin behar da. MGHak onartu zirenetik (2000. urtean), 2015erako helburuak betetzeko behar den dirua kalkulatzeko zenbait ahalegin egin izan dira. Kalkulu gehienen arabera, urtero 50.000 milioi dolar[10] igo behar da GLOa. Horretarako, egungo zenbatekoa bikoiztu egin behar da[11].

---

[8] Beste behin ere, herrialde aberatsenek huts egin zuten aurrerapen-adierazleak jartzeko garaian.

[9] Afrika Plana sakonago ezagutzeko, ikus: INTERMÓN OXFAM (2006), *Plan África. ¿Desarrollo en África?* eta ALBERDI, J. eta BIDAURRATZAGA, E. (2006), *El Plan África 2006-2008: Cuestiones para el Debate,* Foro AOD. FRIDE.

[10] Ondorio horretara iritsi zen Garapena Finantzatzeko Goi Mailako taldearen txostena (Zedillo Txostena).

[11] "Asmo handiko proposamena dirudi, baina ez da horrenbesterako kontuan hartuz gero 1992-2000 epean ELGEko herri emaileen BPGren % 0,33tik % 0,22ra jaitsi zela GLOa. % 0,33 horri eutsi balitzaio (azken 30 urteetako batezbestekoa), 2002an 90.000 milioi dolarretik gertu ibiliko zatekeen GLOa" (CONGDE 2006).

2. koadroa. Kostu Gehigarria /Urteko MGH-ak betetzeko (milioi dolar)		
Informe del grupo de Alto Nivel de la ONU sobre Financiación para el Desarrollo (Informe Zedillo). NNUU.	2001	50.000
The unbreakable link. Greenhill.	2002	31.000 – 37.000 + zorraren kitapena
Goals for Development: History, Prospects and Costs. Banco Mundial.	2002	89.000 – 138.000
Are the MDGs feasible? PNUD.	2002	50.000 – 80.000
Background Paper for Human Development Report. PNUD.	2003	76.300
Pagar el precio. Por qué los países ricos deben invertir ahora en una guerra contra la pobreza. Oxfam Internacional.	2005	50.000 – 100.000
Invirtiendo en el Desarrollo: un plan práctico para conseguir los Objetivos de Desarrollo del Milenio Proyecto del Milenio (Informe Sachs). Proyecto del Milenio.	2005	121.000 (2006rako) 189.000 (2015rako)

Iturriak: SOCIAL WATCH, *2006ko txostena,* 11. orrialdea.

Monterreyko Itunak dio finantziazio-iturri berriak behar direla, zehaztasunik ematen ez badu ere. Helburua ez da, lehenago genioenez, laguntza-kontzeptu berriak bilatzea, baizik eta garapenerako *diru gehiago* biltzea. Nazioarteko iturri horiek, ordea, ez dute izan behar herrialde bakoitzaren konpromisoa aitzakia. Zenbait ekimen sortu dira; horietatik, batzuek, aurrerapen-maila gradu gehiago edo gutxiagorekin. Ikusi ditzagun zenbait:

- Nazioarteko Finantza Tresna (IFF, ingelesez)[12]: 2003. urtean gobernu britainiarrak egindako proposamen honen helburua zen GLOaren etorkizuneko konpromisoei aurrea hartzea, 2015erako baliabide gehiago izateko MGHak betetzeko, finantza-merkatuan bonoak igorriz. Ez dago argi, hala ere, tresnak benetan baliabide gehigarririk sortuko duen; izan ere, kalterako ere gerta liteke, bonoak interesekin itzuli behar izaten dira eta. Alabaina, baditu alde onak ere: aurrez iragar daiteke, eta fluxu egonkorrak ziurtatzen ditu.

[12] Tresna hau sakonago aztertzeko, ikus NOLTE, M. (2008a), *Garapenaren finantzaketarako nazioarteko baliabideak: Tobin tasa eta "Nazioarteko Finantza Tresna" (IFF),* ALBOAN Ikerketa Bilduma, 6.zk.

- Zergak nazioarteko hegazkin-txartelei: Ekimen honek proposatzen du hegazkin-txartelei zerga txiki bat jartzea, aireko garraioek igortzen dituzten gasek berotegi-efektuan duten eragina dela eta. Osasun Funts Orokorrari emango litzaioke jasotzen den dirua, GIB-IHESa, tuberkulosia eta malariaren aurka borrokatzeko. Frantzia eta Txilek abian jarri dute jada ekimena, eta beste 11 herrialdek ere egin dute bat harekin. Espainiak ez zuen ekimena sinatu, zerga horrek turismoa murriztu dezakeelakoan, nahiz eta inongo oinarririk izan ez susmoak. Beste zerga orokor batzuekin alderatuta (armaesportazioen gainekoa, ikatzaren erabilerarena, luxuzko ondasunen gainekoa...), abantaila hau du: herri bakoitzak bere kasa ezar dezake, inolako nazioarteko itunik gabe.

- Tobin tasa[13]: moneta-espekulazioa eta finantza-merkatuen ezegonkortasuna gutxitzeko proposatu zen. Finantza-transakzioen gaineko tasa bat ezartzea proposatzen du. Mugimendu sozialen arreta erakarri zuen proposamenak, zerga txiki batek baliabide izugarriak sor ditzakeela ohartu ziren eta. Horrenbestez, ideia berenganatu eta zergaren diru-sarrerak garapenerako erabiltzea eskatu zuten. Zerga horrek, baina, etorkinek jaioterrietara bidaltzen duten diru-kantitatean eragin kaltegarriak izan litzake. Diru hori da garapen bidean dauden herrien bigarren kanpo-finantzaketa fluxua, atzerriko zuzeneko inbertsioaren atzetik.

Finantziazio-bide berri horiek direla-eta, galdera da nork kudeatuko lituzkeen eta zer irizpiderekin. Mekanismo horiek herri aberatsek hitza ez betetzeko aitzakia ez ote diren bihurtuko beldurraz gain, bada beste bat ere: funts berri horiek kudeatzen dituzten organismoek (Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak, adibidez) laguntza banatzeko irizpide zalantzagarriak eta etekin gutxikoak ez ote dituzten erabiliko Munduko Bankua. Jende askok uste du laguntza NBEren sistemaren bitartez kudeatzeak sendotu egingo lukeela erakunde hori, eta herri txiroen iritziari kasu gehiago egitea ekarriko lukeela.

Laguntza-emaile berriak nazioartean

GLOaren zenbateko orokorrak aztertuz gero, GLBko herrien jokaera behatu izan da. Batzorde horretan daude munduko herrialde ahaltsuenak, ekonomiari dagokionez. Haatik, garapenerako laguntzak ematen dituzten herri gehiago ari dira

[13] Tresna hau sakonago aztertzeko, ikus NOLTE, M. (2008b), *Zor jasangaitza,* ALBOAN Ikerketa Bilduma, 5.zk.

azaltzen. Korea, Mexiko, Turkia eta Europako ekialdeko beste zenbait herri dira, baita Erdialdeko Ekialdeko eta LPEEko zenbait herrialde ere, bereziki Saudi Arabia, eta beste batzuk, hala nola Brasil, India eta Txina. Ez dago datu zehatzik horien laguntzaren zenbatekoaz, baina 2.000 milioi eurotik gorakoa izatea espero da 2010erako (IDA, 2007).

Gainera, Hegoaldeko hainbat herrik –bereziki Hegoamerikakoak (Venezuela, Ekuador, Bolivia, Argentina)– Hegoaldeko Bankua eratu berri dute. Banku horren xedea da herrien garapenari laguntzea, baina herri aberatsek kontrolatzen dituzten organismoen (Munduko Bankua, adibidez) baldintza eta irizpide ekonomikorik gabe.

GLO: kalitatea

Nazioarteko konpromisoek ekarri duten laguntza-zenbatekoaren handitzearekin eta finantziazio-tresna zein emaile berriak sortzearekin batera, laguntzaren eraginkortasuna bermatzeko ahalegina egin behar da eta emaile berri. Horrek egiturazko berrikuntzak eskatzen ditu, garapenerako lankidetzaren antolakuntzari dagokionez.

Laguntzaren Eraginkortasunaren gaineko Parisko Adierazpena

ELGEren azkeneko datuen arabera (2006), badira gaur egun alde biko edo anitzeko 200 erakunde baino gehiago GLOaren funtsak bideratzen dituztenak. Zenbait herrialdek 40 emaile baino gehiagoren funtsak jasotzen ari dira, eta 600 proiektutik gora dituzte abian. Berez berri ona ematen duen arren (elkartasun-espiritua eta erantzukizun orokorra zabaltzea), desafio zaila bihurtzen da laguntza hartzen duten herrientzat. Izan ere, herri edo nazioarteko erakunde bakoitzak bere kudeaketa-sistema propioa ezartzen du, eta horrek handitu egiten ditu kostuak eta administrazio-zama. Horretaz gain, emaile asko daudenez, eginkizun askotarako zenbateko txiki ugari jasotzen dute herriek. Laguntzaren sakabanatzea eta banaketa ez-koherentea eragin ditzake horrek.

Ugandak, adibidez, 40 herrialde baino gehiagotatik jasotzen du laguntza. Ugandako gobernuak zabaldutako datuen arabera, azken hiru urteetan 684 tresna eta laguntza-hitzarmen kudeatu behar izan dituzte, emaileek aurrekontu orokorrari egiten dioten ekarpenari dagokionez soilik (BURALL, MAXWELL & ROCHA MENOCAL, 2006).

2005eko martxoan, Parisen, laguntzaren eraginkortasunari buruzko Goi Mailako II. Foroa egin zen[14], 91 bat herritako ordezkarien (laguntza-emaileak eta hartzaileak) eta alde anitzeko 26 erakunderen partaidetzarekin. Pariseko Adierazpena[15], deritzona onartu zuten Foroan, konpromiso hauekin:

- **Jabetzea edo protagonismoa:** herri laguntza-hartzaileek garapenerako politika, estrategia eta sistema propioak ezartzeko gidaritza. Hau da, herriak dira haien agenda ezartzen dutenak.
- **Lerrokatzea:** emaileek laguntza orokorra herri hartzaileen garapenerako estrategia, erakunde eta prozedura nazionaletan oinarritzen dituzte.
- **Harmonizazioa:** herri laguntza-emaileek kudeaketa-prozesu erkide errazagoak adosten dituzte, informazioa banatzen dute eta ekintza bateratuak bultzatzen (azterketa eta ebaluazioak, adibidez), transakzio-kostuak murrizteko.
- **Emaitzetara zuzendutako kudeaketa:** adostutako garapen-helburuak lortzeko baliabideak kudeatzea eta erabakiak hartzeko era hobetzea.
- **Elkarrekiko erantzukizuna:** emaileak eta partaideak erantzule dira, eta laguntzaren kudeaketari eta lortutako emaitzei buruzko kontuak azaltzen dizkiote elkarri.

Ez da, soilik, printzipio-aldarrikapen bat; bost urteko ekintza-plan bat ezartzen du, berrogeita hamar konpromiso zehatz baino gehiagorekin. Haren segimendua egiteko, hamabi aurrerapen-adierazle ezarri ziren, bakoitza bere xedeekin, 2010erako bete beharrekoak. Hala, aurrerapenak ikusi eta, azkenik, arrakasta edo porrota ebaluatu daiteke. Konpromiso horien segimendua egiteko lantalde bat eratu du ELGEk. Lehen txostenak[16] (2006koa) finkatzen du abiapuntua, 34 herrialde laguntza-hartzaileren azterketa eta 60 emaileren datuak oinarri dituela. Laguntzaren eraginkortasuna hobetzeko herrien arteko elkarrizketak hasiak direla eta oraindik bide luzea egin behar dutela dio, besteak beste, txostenak.

---

[14] Ez zen ekimen isolatua izan; Monterreyko Goi-bilera eta gero beste topaketa batzuk ere izan ziren: Harmonizazioari buruzko Erromako I. Goi Mailako Foroa (2003) eta Emaitzetara Bideratutako Kudeaketari buruzko Marrakexeko Mahaiingurua (2004).

[15] *Garapenerako laguntzaren eraginkortasunari buruzko Parisko adierazpena* hemen duzue: http://siteresources.worldbank. org/DEVCOMMINT/Documentation/20451909/DC2005-0002(S)-Paris%20Decl.pdf

[16] ELGE (2007).

Bestalde, zenbait erakundek Parisko Adierazpena kritikatu egin dute, iruditzen baitzaie Hegoaldeko herriak beren gizarteak baztertzera bultzatzen dituela garapen-lehentasunak ezartzean, edo, kasurik onenean, gizarte horien iritzia kontuan izan gabe betearazle subsidiariotzat erabiltzen dituztela beren erakundeak. Gobernu laguntza-hartzaileen sendotzea eta jabetzea oso garrantzitsua bada ere, halaxe da irizpide askotariko gizarte zibila –herrialde baten garapen-agenda zehazten lagun dezakeena– izatea ere.

Laguntza-kalitatearen beste elementu batzuk: baldintzak eta GLOri lotutako laguntza

1999tik, Munduko Bankua pobrezia murrizteko estrategiak biltzen dituen dokumentu bat prestatzeko eskatzen die Munduko Bankuak *diru-sarrera baxuko* sailkapenean sartzen diren mailegu-hartzaileei (Pobreziaren Kontra Borrokatzeko Estrategia Dokumentua –PBED–), gobernu-erakundeen zein eragile sozial, ekonomiko eta politikoen (gizarte zibileko elkarteak barne) parte-hartzearekin.

Pariseko Adierazpenaren lehen bi konpromisoak betearaztea du helburu dokumentuak: herriek agenda propioa ezartzea. Herrialde laguntza-emaileek aintzat hartu eta lagundu egin behar dute agenda. Baina ahuleziak ere badituzte PBEDek. Zenbait kasutan –Kanputxeak, adibidez– kanpoko aholkularitza bati eskatu zaio PBED horiek idazteko. Herriak berak agenda erabakitzeko helburuarekin ez dator bat jokabide hori.

Partaidetza demokratiko hori ilundu egin dute, batetik, MB eta NMFren ekonomia-politikaren gaineko eskakizunek; bestetik, laguntzak PBEDei egokitu beharrean, dokumentua haien lehentasunei moldarazten duten herri laguntza-emaileek ezarritako baldintzek. Pariseko Adierazpenak dioen legez, elkarrekiko erantzukizuna lortzeko jardunbide murriztaile horiek bertan behera utzi behar dira.

8. MGH 35. adierazleak ere –baldintzatuta ez dagoen ELGEren GLBko alde biko GLOaren proportzioa– berretsi egiten du ideia hori. Lortu beharreko helburua da pobrezia eta desberdintasuna murriztea, ez interes eta aliantza geoestrategikoak.

Bestalde, GLOri *lotutako laguntza* deritzo hartzaileari herri emaileko hornitzaileen ondasunak eta zerbitzuak erostera behartzen dituenari. Hornitzaileen lehia zabaltzea dakar laguntza GLOtik askatzeak, eta kalitate-prezio aldetik eskaintza hobeak jasotzea. Prezio hobeak lortuz gero, baliabide-erabileraren eraginkortasuna ere hobetu egiten da. Era berean, lotura gabeko laguntzak herri hartzailean

lekuko garapena eta hazkunde ekonomikoa sor ditzake, hornikuntza-mendekotasunik eta kanpoko laguntzarik gabe.

Monterreyko Ituna sinatu zuten herrialdeek hitzeman zuten bete egingo zutela ELGEk 2001ean onartutako gomendioa, hau da, ez zutela lotuko laguntza kontratuekin. Gizarte erakundeek zein ELGEk espainiar lankidetzari egindako kritika gogor bat GLFren krediuekin lotuta dago (GLF: Garapenerako Laguntza Funtsa, garapenerako laguntzari ekarpenak egin eta era berean, espainiar enpresak nazioarteko bihurtzea sustatu nahi du). Laguntza "lotua" ematea egozten zaio, baita helburu komertzialei espainiar lankidetzari baino jaramon gehiago egitea ere.

3. koadroa. Garapenerako laguntzari eta haren kalitate eta kantitateari buruzko informazio eta kanpaina	
Zero Pobrezia	www.pobrezacero.org
% 0,7 Plataforma	www.plataforma07.org
Hiritar Kontrola/ Social Watch	www.socialwatch.org
ATTAC, justizia ekonomiko globala	www.attac.es
Kalitatezko laguntza	www.betteraid.org
Laguntzaren benetako egoera	www.realityofaid.org www.alop.or.cr www.intermonoxfam.org
Espainiar laguntzaren eraginkortasuna	www.foroaod.org
Zorraren eta garapenaren gaineko europar sarea	www.eurodad.org
Giza garapenerako, hezkuntza globalerako eta herritarren partaidetzarako baliabideak	www.bantaba.ehu.es
ALBOAN Fundazioa (*Zenbakiez haratago* ikerketa)	www.alboan.org

III. Nazioarteko bidezko merkataritzaren alde

GLOri buruz mintzatu gara, zeinak berebiziko garrantzia baitu garapenerako, herri bakoitza mobilizatzeko gai den baliabideekin batera. Hala ere, esfortzu hori ez da nahikoa. Beharrezkoak dira garapena sustatzeko bestelako mekanismoak.

MGHak betetzeko, oinarrizko elementu dira nazioarteko merkataritzan egindako berrikuntzak. Bere helburuetatik bitan aipatzen du premia hori 8. helburuak: "are gehiago garatzea merkataritza- eta finantza-sistema bidezkoa, arautua, aurreikus daitekeena eta ez-diskriminatzailea" (13. helburua) eta bermatzea "gutxien aurreratutako herrialdeetako esportazioak libre sartzea, arantzelik eta kuporik gabe" (14. helburua). Merkataritzarekin lotutako lau adierazleek ez dute irismen-mailarik zehazten; beraz, zaila da helburu horien aurrerapenaren edo atzerapenaren segimendua egitea.

Merkataritzak eginkizun oso garrantzitsua du egungo mundu honetan (gero eta elkarri konektatuagoa, gero eta elkarren mendekoagoa) ekonomia globalerako eta garapenerako. Ondasunen eta zerbitzuen transakzio globala ez da inoiz izan azken urteotan bezain handia eta garrantzitsua. Baina hazkunde horrek ez ditu etekinak berdin uzten herri guztietan. Era berean, trukatzen diren produktu eta zerbitzuen banaketa ez da orekatua. Munduko polarizazioaren eta desberdintasunaren erakusgarri argia da nazioarteko merkataritza.

> Transakzio komertzialen % 70 nazioarteko multinazionalek kontrolatzen dituzte. Munduko 49 herri txiroenek (biztanleriaren % 10) munduko merkataritzaren % 0,4 besterik ez dute egiten, 1980koaren erdia. Nazioarteko merkataritzaren % 60 nazioarteko enpresen filialen arteko merkataritza da gaur egun (SOCIAL WATCH 2006).

Herriek diru-sarrerak izateko, oinarrizko premia sozialen estaldura ziurtatzeko (elikadura-segurtasuna, osasuna, hezkuntza, ur edangarria izatea...), garapena sustatzeko eta pobrezia murrizteko duten ahalmenean munduko merkataritzak dituen eraginak berrikusi egin behar dira, nahitaez.

Hitzarmen eta arau ugarik erregulatzen dute munduko merkataritza, eta muga komertzialak, arantzelak, kuotak eta ekoizpenerako diru-laguntzak ezarri dituzte. Herri garatuetako gobernuek, multinazionalek eta nazioarteko erakundeek dute eraginik handiena mundu-merkataritzaren *joko-arauak* ezartzeko. Indarrean dau-

den merkataritza-itunak aztertuko ditugu, eta horiek MGHen garapen eta lorpenean duten eragina.

Munduko Merkataritza Erakundea

Munduko merkataritza ulertzeko, komeni da aztertzea Munduko Merkataritza Erakundeak (MME) globalizazio-prozesuan duen eginkizuna eta garapen bidean dauden herrietan duen eragina. Erakundea sortu zenetik (1995ean)[17], nazioarteko merkataritzaren arauak ezarri eta erregulatu dituen alde anitzeko erakundea izan da MME. MMEk sustatutako mundu-akordioak dira nazioarteko eragiketak egiteko eta harremanetan jartzeko herriek daukaten tresna. Neurri horiek negoziaketa-saioetan eztabaidatu eta onartzen dira, estatu guztiek parte hartzen dutela, eta mundu osorako konpromisoak eta arauak sortzen dira.

2001ean, MMEk Dohan (Qatar) izandako ministro-batzarrean, beste negoziaketa itzuli bat jarri zen abian, garapen bidean dauden ekonomientzako ezinbestekoak diren gaiei buruz akordioa lortzeko asmoz: "nazioarteko merkataritzak eskuhartze handiagoa izan dezake garapen ekonomikoaren sustapenean eta pobreziaren aurkako borrokan. Ohartzen gara herri guztiek atera behar dutela etekinik sistema multilateralak eskaintzen dituen aukeretatik eta ongizatearen hobekuntzatik" (Dohako ministro-adierazpena, 2001eko azaroa). Hala, *Garapenaren itzulia* deitu zitzaion negoziazio-saioari.

Sei urtez negoziatu eta bi ministro-bilera egin ondoren, itzuli horretako negoziaketak bere horretan geratu dira, batez ere nekazaritzarako laguntzen gainean herri aberatsek izandako eztabaidagatik eta garapen bidean dauden herriak argi eta garbi haientzat kaltegarri diren itunak onartzearen kontra egoteagatik.

Eremu politikoa edo garapen bidean dauden herriek nazio-politikak –merkataritzaren, inbertsioaren eta industria garapenaren gainekoak– zehazteko duten ahalmena mugatzen dute negoziaziopean dauden arauek. Nazioarteko konpromiso horietan sartzen dira arantzelak, nekazaritza-politika, inbertsioa, zerbitzuak eta merkataritzarekin lotutako jabetza intelektuala egile-eskubideak (PAGE, 2007). Ezinbestekoak dira alor horiek ekonomiaren hazkunde eta garapenerako. Akordioen bidez, muga gehiago ari dira jartzen herrialde aberatsak, Hegoaldeko agintariei beren herrientzako politika eraginkorragoak bultzatzea eragozten dietenak.

---

[17] Ikusi glosarioa. Erakunde horren sorrerari buruz gehiago jakin nahi baduzu, begiratu: ZABALO, P. (2000), *La Organización Mundial del Comercio, Paradigma de la Globalización Neoliberal.* Hegoa-ko lan-koadernoak, 28. zk. Hemen aurkituko duzu: http://old.hegoa.efaber.net/hegoa/publ/pdf/29

Nazio Batuen Merkataritza eta Garapenari buruzko Konferentziak (UNCTAD) egin berri duen ikerketa batek aurreikusten du garapen bidean dauden herriek urtero 32 mila milioi eta 63 mila milioi dolar arteko galerak izan ditzaketela du, arantzelen diru-sarrerak direla eta, MMEren Dohako Itzuliaren ondorioz. Zerga-bilketaren bidezko diru-galera Dohako Itzuliak herri horiei irabazietan emango lizkiokeen 16 mila milioi dolar eskasak baino askoz handiagoa da (bi eta lau aldiz artean). Zerga-bilketaren araberakoak dira, izan ere, garapen bidean dauden herrien osasun publiko, hezkuntza, ur hornikuntza, eta osasun zerbitzuen aurrekontuak (SOCIAL WATCH, 2006).

Dohako Itzulia bere horretan jarraitzeak 8. MGH betetzeko aukera garrantzitsua galtzea dakarrela onartu egin zuen 2007ko ekainean MGHei buruz NBEk argitaratutako txostenak. Dohako Itzuliko negoziaketek kolokan jartzen dute jende askoren etorkizuna, baina, batez ere, nazioarteko merkataritzaren bidez garapen bidean dauden herriek gainerako Milurteko Helburuak lortzeko behar diren baldintzak sortzeko aukera zapuzten du. Negoziaketa horien eragina izugarri kaltegarria izan daiteke, joko-arauak ez badira guztientzat berdinak eta bidezkoak.

Negoziaketen gakoak

Hegoaldeko herri batzuetako merkataritza-liberalizazioaren azkartzeak eta industria eta enpresa gaitasun mugatuak ekoizpen-talde estrategikoen jasangarritasuna arriskuan jartzea dakar. Nazioarteko finantza-erakundeek ezartzen dituzte, ia beti, liberalizazioaren kondizioak eta erritmoak, garapen bidean dauden herriek laguntzak, atzerriko inbertsioak eta maileguak hartzeko baldintza gisara. Garapen bidean dauden herriek amore ematen jarraitzen badute, herri aberatsek eta enpresek gero eta kontrol handiagoa izango dute.

Nekazaritza

Alderdi benetan sentikorra da. Hegoaldeko herrietako biztanleen bizibide eta lanbide nagusiena da nekazaritza. Pertsona txiroen % 70 nekazaritza-lurretan bizi da, eta, neurri handi batean, nekazaritza behar du bizirauteko. Arlo horretako akordioak garapenerako eta MGHak lortzeko erabakigarriak izango dira. Alabaina, herri aberatsek inongo mugarik gabe ezarri dituzte euren politikak, eta horrek kostu handia izan du gainerako herrialdeentzat. Sektore horretako ekonomiarik protekzionistenak herri aberatsetakoak dira: inoiz ez diote bere buruari

jarri besteei jartzen dizkieten araurik. Argi dago nekazaritza-produktuen gaineko arau bidezkoagoak ezarri behar direla, garapen bidean dauden herrien aldekoak, haien merkataritza eta inbertsio-politikak zehazten eta babesten lagunduko dietenak, nekazarien bizi-baliabideei eutsi eta haien elikadura-segurtasuna (1. MGH) ziurtatuko dituztenak. Baina herri aberatsek oraindik ere oso gutxi eskaintzen dute nekazaritza-hitzarmenetan.

Estatu Batuetan, nekazaritzarako diru-laguntzak 150.000 milioi dolarretara iritsi ziren 1995 eta 2005 artean (CGD, 2007). ELGEk nekazaritza ekoizpenari emandako zuzeneko laguntzak 360.000 milioi dolarrekoak izan ziren (ROSAS, 2005). Zenbateko hori Hegoamerikak eta Karibek biek batera egindako esportazioen balio osoa baino handiagoa da, eta 2006ko Garapenerako Laguntza Ofizial osoa –103.000 milioi dolar– halako hiru (GLB, 2007).

Nekazaritzarako barne-laguntzak sailkatu ditu MMEk, merkataritzan eragiten duten aldakuntzaren arabera. Hiru maila edo *kutxa* daude. *Kutxa anbarreko* laguntzak dira merkataritzari gehien eragiten diotenak. Murriztapen-akordioetan daude[18]. *Kutxa urdinean*, merkataritzari gutxien eragiten diotenak daude[19]. *Kutxa berdean,* berriz, ia eraginik gabeko laguntzak daude, edo duten eraginagatik inolako mugarik ez dutenak[20]. Laguntza horiek, esportazio laguntzekin batera, merkatuan aldaketa handiak eragiten dituzte. Negoziaketen helburua da nabarmen murriztea nekazaritzako jarduera protekzionistak. *Dumping-ak*[21] eta arantzelak ez diren mugek herri aberatsetako merkatuak babesten dituzte herri txiroetako produktuetatik. Nazioarteko arauen edo alderdi biko akordioen mende daude herri txiroak.

---

[18] *Kutxa anbarrean* daude produkzio-bolumenean nabarmen eragiten duten laguntza-politikak, bai ekoizleei dagokienez, bai nekazaritza-abeltzaintza sektore osoari. Gehiago jakiteko, gomendatzen dizugu: HEALY, S., PEARCE, R. eta STOCKBRIDGE, M. (1998), *El Acuerdo sobre la Agricultura de la Ronda Uruguay: Repercusiones en los países en desarrollo. Manual de capacitación.* Nekazaritza planifikatzen gaitzeko materialak, 41. zk. FAO. Helbide honetan eskuragarri: www.fao.org/DOCREP/004/W7814S/W7814S05.htm#domestic

[19] Trantsizio-elementu ezabagarri gisara ari dira negoziatzen neurri horiek. Konpentsazio-ordainketei buruzkoa da. Kutxa anbarreko produktu salbuetsien ekoizpena mugatzeko programako zuzeneko ordainketak dira. Adibidez, landutako azaleraren edo abelburu-kopuruaren arabera egiten direnak.

[20] *Kutxa berdean*, berriz, zuzeneko ordainketa-programa ugari dago: ekoizleen erretiroa, ingurumenaren babesa, laguntza erregionala, ikerkuntza-zerbitzuak, trebakuntza eta landa-azpiegitura mota batzuk.

[21] *Dumping* deitzen zaio zenbait produkturen ekoizpena diruz laguntzen duen jarduera komertziala, herrialde aurreratuek erabili ohi dutena. Gainprodukzioa eragiten du jarduera horrek; hala, atzerriko merkatuan produkzio-kostuaz behetik saldu daitezke soberakinak. Nazioarteko merkataritzaren arauak urratu egiten ditu jokabide horrek, eta desabantaila dakarkie laguntzarik jasotzen ez duten herrialdeetako ekoizleei.

Estatu Batuetako kotoi-sektoreak 3.000 milioi dolarretik gorako laguntzak jaso zituen 2004an. Diru horren % 80 inguru nekazarien % 10k jaso zuen (AEBko 13.000 kotoi-ekoizle). Laguntza horiek Afrikako erdialde eta mendebaldeko 10 milioi nekazari baino gehiagori eragin zieten (CGD, 2000), kotoiaren nazioarteko prezio "eraldatu eta ez-benetako" horrek galarazi egin baitzien lehiakor izatea. Kotoiaren prezioak kalte handia eragin zien nekazari horien diru-sarrera eta bizi-kalitateari.

Zerbitzuak

Duela gutxiko kontua ez bada ere, gobernu asko liberalizazio-neurriak hartzen ibili baitira azken urteotan, Dohako negoziaketen berrikuntza hau da: legedia eta politika nazionalak mugatzeko esparru instituzionala eta konpromiso formalak zehazteko akordio-proposamena. Sektore horren gaineko negoziaketen hasieran, pentsatu zen gutxien garatutako herriei malgutasuna ematea, betiere euren garapen-maila eta politika nazionalen helburuak kontuan hartuz, baina ez dirudi lehentasunezko tratu hori ematen ari zaienik.

MMEk dio ez dagoela zertan larritu zerbitzuen pribatizazio eta liberalizazioagatik. Akordioak kritikatzen dituzten erakunde askok negoziazioei buruzko *beldurrezko ipuinak* asmatu dituztela dio MMEk. Zerbitzu Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra (GATS, ingelesezko siglen arabera –General Agreement on Trade in Services–) sinatzera ez omen da inor behartzen, MMEk dioenez. Zerbitzuei buruz, jarrera hau du MMEk: nazioetako gobernuek zehaztu dezatela zer sektore edo azpisektore sartu behar dituzten negoziazioetan. Herriei esparru politikoa uztearren eta zer konpromiso hartu nahi duten eurek erabaki dezaten bultzatu zen asmo hori. Baina atea zabalik uzten du horrek era guztietako zerbitzuak (zerbitzu publikoak barne) GATSen eskumenetan sartzeko. Garapen bidean dauden herrietako gobernu asko presiopean daude negoziaketa horietan –zerbitzuak dira munduko ekonomiaren % 50–. Amore ematen badute, guztion onerako politikak egiteko gaitasuna erabat galduko da; adibidez, osasuna (4, 5 eta 6. MGHak), hezkuntza (2 eta 3. MGHak) edo ura eta saneamendu politikak (7. MGH).

Cochabamba hirian, Bolivian, uraren pribatizazioarekin izandako esperientziak prozesu horien konplexutasuna eta gizartean duten eragina erakusten du. Ur-hornikuntzako sare eskasak inbertsio handia behar zuen zerbitzua

hobetzeko. Gobernuaren baliabide-urritasunak eta nazioarteko erakundeek maileguak jasotzen jarraitzeko ezarri zizkioten murriztapenek hiria uraz hornitzen zuen enpresaren pribatizazioa ekarri zuten. Prozesu horrek ur-tarifen % 200-300ko[22] igoerak ekarri zituen. Cochabamba hirian bezeroak gogor kexatu ziren, eta istilu larriak izan zituzten polizia eta armadarekin. 2000ko apirilean, emakida bertan behera uzten zuela jakinarazi zuen gobernuak (KRUSE eta RAMOS, 2003).

Jabetza intelektuala

Egile eta jabego intelektualaren gaineko eskubideen negoziaketa ere garrantzi handiko gaia da. *Uruguaiko itzuliaren* ondoren, garapen bidean dauden herriak oso arduratuta dabiltza horrekin. Jarduera ekonomiko guztiak MMErа eraman eta merkantzia gisara tratatu daitezkeela onartzeak murriztu egin du negoziaketarako eremu politikoa. Jakintza globala, berrikuntza eta teknologia ez daude gaur egun herri txiroen eskura; osasunari dagokionez, adibidez, gero eta zailagoa zaie aurrerapen teknologikoak eskuratzea.

Herri pobreetan eragin handia izan dute jabego intelektualaren gaineko merkatu-arauek. Oinarrizko botikak eskuratzea ia ezinezkoa zaie pobreei, oso garestiak direlako eta euren poltsikoetatik ordaindu behar izaten dituztelako. Arazo hori dela eta, gizarte zibilak eta Hegoaldeko gobernuak kexatu egin dira, eta osasun publikoa babestea eta botika generikoak eskatu dituzte. Merkataritzari loturiko Jabetza Intelektualeko Eskubideei buruzko Dohako Adierazpenak (ADPIC)[23] aitortu egiten die garapen bidean diren herrialdeei osasun publikoa zaintzeko eskubidea, baita prezioak erregulatu eta herritar gehienek botikak eskuratzeko beharrezko diren botika generikoak erabiltzekoa ere (4, 5, 6 eta 8. MGHak). Alabaina, garapenaren aldeko erabaki historiko hori ez da betetzen ari, eta zenbait herrialdek (AEB, adibidez) nazioarteko itunekin bat ez datozen jabetza intelektualeko arauak txertatu baitituzte merkataritza libreko hitzarmenetan. Arau horiek direla eta, herrialde pobreei are zailagoa zaie botika merkeak eskuratzea (OXFAM, 2006).

[22] Pobrezia-tasa handiko herrialdea da Bolivia. 2007ko NBGPren txostenaren arabera, pobrezia-mailaren azpitik bizi dira Boliviako herritarren % 62,7. Egoera horrek are larriago bihurtzen du uraren pribatizazioa, eta ondasun hori herritar pobreenen eskura jartzea ezinezko egiten.

[23] TRIPS, ingelesez –Trade-Related Aspects of Intellectual Property Rights–.

Novartis enpresak Indiako gobernua demandatu zuen, Glivec botikaren[24] esklusibotasuna lortzeko. Enpresa farmazeutiko horrek zioen Indiak ez zuela betetzen MMEren jabego intelektualaren politika. Novartisek jarritako demandak, Glivec kasua ez ezik Indiako patente-legea kolokan jartzearekin zuen zerikusia, botikak merkeago eta eskuragarriago izatea ahalbidetzen zion legea alegia.

Novartisek, gainerako farmazia-enpresen antzera, bere patenteak defendatzen ditu, salmenten diru-sarrerak botika berriak ikertu eta garatzeko erabiltzen dituztela esanez. Gauza jakina da, dena den ikerketarako erabiltzen den ehunekoa botika horien salmentak ematen dituen irabaziak baino askoz txikiagoa dela, eta, batez ere pobreenei eragiten dieten gaixotasunen gaineko ikerketarik ez dela egiten apenas.

2007ko abuztuan, Novartisen jarritako demanda guztiak baztertu egin zituen Indiako auzitegi batek. Munduko bazter guztietako ehunka mila pertsonen eta zenbait erakunderen presioak lagundu egin zuen erabaki hori hartzen. Novartisek irabazi izan balu, botikak sortzeko ahalmena bertan behera utzi edo gutxitu egin beharko zukeen Indiak, eta herrialde horrek eta beste hainbatek ezingo zuketen erabili ADPICek ematen dieten lege-babes apurra herritar pobreak botika merkez hornitzeko[25].

Garapen bidean dauden herrietako antzinako jakintzen babesari buruz ere bada eztabaidarik jabetza intelektualeko hitzarmenak direla eta. Enpresa transnazional handiak ari dira berenganatzen jakintza horiek. Enpresa horiek baliabide naturalez, sendabelarren propietateez eta komunitate askoren jakintza kolektiboez jabetzen dira, eta, gero, patentatu egiten dituzte. Enpresa transnazional handiek produktuak, prozesuak eta material organiko eta genetikoa patentatzeko eskubidea bereganatu nahi dute, berrikuntza eta ikerketa aitzakia direla. Egiazki, ordea, etekin handiak dakarzkie multinazionalei jarduera horrek, baita sektore askotako merkatuaren kontrola ere. Patente horiek oztopatu egiten dute baliabide genetikoak eskuratzea, haziak garestitu egiten dituzte, eta nekazariek ezain izaten dituzte erosi. Gainera, patenteak ematen dituzten enpresen mendeko bihurtzen dituzte ekoizleak (1. MGH).

---

[24] Tumoreen aurkako *imatinib* sendagaia, Novartisek "Glivec" izenarekin merkaturatua. Indiako enpresa farmazeutikoek "Glivec" botikaren generikoak egiten dituzte, eta 1.900 dolarretan saltzen, hots, tratamendu horretarako Novartisek jarritako prezioaren hamarrenean.

[25] Ikus albiste osoa hemen: www.intermonoxfam.org/page.asp?id=2005&ui=8601

Arto-landareak olio eta koipedun azido batez estaltzen dituen patente bat lortu zuen Du Pont enpresak 2000n. Produkzio-kate osoaren patentea eskatu zuen Du Pontek. Ikerketek erakutsi zutenez, arto-mota hori aspaldi ekoizten zen Latinoamerikan, non funtsezko produktua baita biztanleen eguneroko elikaduran (MATHABA, 2007).

Azken urteotan, berrikuntza teknologikoarekin lotutako eremu berri bat sortu da; patenteen erregistroa eta nekazaritzako produktuen merkatu izugarria, hain zuzen ere: eraldaketa genetikoa. Genetikoki eraldatutako elikagaien hazkundeak munduko herri askotako nekazari txikiei biziki eragin die. Industria bioteknologikoak uzta transgenikoak merkaturatu ditu, espezie asko arriskuan jartzen dituztenak, intsektuen kontrako erresistentzia, herbiziden kontrako tolerantzia lortzeko edo produkzioa igotzeko eraldatzen dituztelako.

Monsanto enpresak Indian dihardu 1949tik. Enpresa horrek Indiako milaka nekazariren demandak jaso ditu genetikoki eraldatutako materialek sortutako kutsadurarengatik, Indiako lurzoru eta bioaniztasunari egindako kalteak direla eta. Herri horrek ehun eta hogei mila arroz-hazi mota zituen; egun, berrogeita hamar baino ez dira geratzen. Indiako arroza esportatzen duten taldeek genetikoki eraldatutako arrozaren uzta esperimentalak debekatzea eskatu dute (MATHABA, 2007).

2002tik, genetikoki eraldatutako kotoi-haziak (Bt kotoia) zabaldu ditu Monsantok, produkzioa handiagoa izango dela hitz emanez. Indiako nekazari asko fidatu eta haziak erosi zituzten, baina etekina espero baino txikiagoa izan zen. Hori zela eta, zorpetu egin ziren. Erabat zordunduta, milaka nekazarik bere buruaz beste egitea erabaki zuten (SHIVA, 2007).

Inbertsioa

Uruguaiko Itzulia egin zenetik, inbertsioa ere negoziaziogai garrantzitsua da. Emaitza bakarra, orain arte, gutxien garatutako herriei jarritako murriztapenak urritzea izan da. Atzerriko zuzeneko inbertsioa (AZI) inbertsiogilearen nahiz herri hartzailearen onerako arautu daiteke. Aldebiko hitzarmenek arau osagarriak ezartzen dituzte, eztabaidak bere horretan dirauen arren nazioartean eta eskual-

de bakoitzean. Hortaz, akordio horien zeinahi ondoriori dagokien kontrola eta segimendua MMEtik arautu behar litzateke. Inbertsio handienak herri garatuen artekoak diren arren, garapen bidean dauden herri batzuek ere atera dute etekinik, hala nola Brasil, Txina eta Mexikok. Dena den, herri txiro gehienek ez dute jasotzen enplegua sortzeko adina inbertsiorik.

Tratu berezi eta bereizia

Bateratasun kontzeptuak arau-multzo bat oso-osorik onartzera behartzen ditu herriak. Dena dela, MGHak lortzeak eskatzen du herri txirotuek malgutasunez jardun ahal izatea giza garapeneko helburuak arriskuan jartzen dituzten hitzarmenen alderdiekin. Hala ere, *tratu berezi eta bereizia* ez da ohikoa gaur egun, salbuespena baizik (VANDEMOORTELE eta beste batzuk, 2003).

Gaitasunak sendotzea

Azkenik, garrantzitsua da, negoziaketetako parte garen aldetik, labur berrikustea merkataritzari laguntzeko azken ekimenak. Merkataritzari Laguntzeko Programak, Hong Kongeko 2005eko bileran aurkeztua, herri txirotuei laguntzea du xede merkataritzaren onurei etekina ateratzeko gaitasuna eraikitzen. Programa horrek barne hartzen du merkataritzarekin lotutako laguntza teknikoa eta azpiegitura.

Ekoizpen-gaitasuna garatzeko laguntza ere ageri da programan. Horretarako, hainbat esparrutan esku hartzea proposatzen du; besteak beste, merkataritza-politikan, erregulazio-politiketan, aldaketarako laguntzan, azpiegitura ekonomikoan eta ekoizpen-gaitasunaren sorreran.

Laguntza hori epe luze eta laburreko urgazpentzat jotzen da aurreikusten da, baita gutxien aurreratutako herrien eta garapen bidean dauden nazioarteko merkataritzarako gaitasun handieneko herrien bereizletzat ere. Epe laburreko laguntzek negoziaketekin zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko diru-laguntzak aurreikusten dituzte, barne direla herri batek babestutako merkatu batean lehentasunez sartzeagatik izan ditzakeen galerak, edo laguntzak (adibidez, jabego intelektualaren baldintzak betetzeko edo merkataritzari garesti ateratzen zaizkion osasun-arauak eta arau teknikoak betetzeko). Epe luzera, berriz, azpiegiturak sortzeko diru-laguntzak aurreikusten dira. Herri gehiago sartzen dira bigarren multzo horretan: diru-sarrera txikiko herriak, eta zuzeneko garapen-laguntzaren onuradun nagusi ez diren sarrera ertaineko batzuk (PHILLIPS eta beste batzuk, 2005).

Merkataritzarako laguntza horiek alderdi anitzeko hainbat erakunde biltzen dituzte. Hogeita zortzi herritan dago martxan programa, eta, epe laburrera, beste bederatzik ere hartuko dute parte. Gutxien garatutako herrien multzoan sartzen ez direnei laguntza emango zaien aztertzen ari dira. Funts horiek mailegu-aukera gisara plazaratu izan dira; hori dela eta, ez dira horren erakargarriak diru-sarrera ertaineko herrialdeentzat.

Zenbait kritika ere egin zaizkio laguntza-programa horri, MMEren negoziaketa nagusietatik urrundu egiten dela eta. Beste batzuek diote, berriz, mailegu gisara ari zaiela ematen herrialde pobreei diru-portzentaje handiago hori, eta horrek negoziazioak oztopatu egiten dituela (PHILLIPS et al., 2005). Azkenik, merkataritza-arauen funtsezko arazoen negoziazio multilaterala egiten ez bada eta babesten bada herrialde bakoitzak bere politika egiteko eskubidea, aringarri txiki bat besterik ez da izango merkataritzarako laguntza, nazioarteko merkataritzaren benetako eginkizunetik urrun dagoena.

Merkataritza Askeko Itunak

MMEko akordio multilateralen porrotak (2006ko ekainean, negoziaketak bertan behera geratu ziren) herri txirotuen eta herri aberatsen (AEB eta Europa, batez ere) alde bitako eta eskualdeetako akordioak sinatzea ekarri du. Merkataritza Askeko Itunek (MAI), kasu gehienetan, merkataritzako gaiez gain beste batzuk ere jorratzen dituzte. Itun horietako askok politika nazionalak zeharo baldintzatzen dituzte eta barne garapen-politikari kontra ere egiten diote batzuetan. Batik bat langile, nekazari eta enpresa txikiei eragiten diete itunek. Herri txirotuek MMEren konpromiso multilateralei eta alde biko edo lekuko akordioei aurre egin behar diete aldi berean.

Negoziaketak ez daude maila berean. Herri aberatsen eta enpresa transnazionalen botereak zamak eta betekizunak sortzen dizkie gutxien dutenei, eta etekin handiak eurei. Herri aberatsekiko harremanek eta merkataritzak behartsuenei inbertsioa, lana eta hazkundea ekarriko dietelako itxaropena dute erakunde horiek. Aurrekontu neoliberala hitzarmen horien bultzatzaile eta hazkunde ekonomikorako estrategia izan da.

Estatu Batuekin (AEB) edo Europako Batasunarekin (EB) sinatutako hitzarmenek garapen bidean dauden herriak arantzel-tasak zerora murriztera edo izoztera behartzen dituzte. Tokiko industria babesteko arantzel-politikak erabiltzeko aukera kentzen dio horrek herriari.

Aldebiko edo eskualdeko akordioen gakoetako bat bihurtu da inbertsioa. Horri esker, Iparraldeko herriek abantailak izaten dituzte beren enpresak Hegoaldeko herrietan finkatzeko. Hitzarmenek inbertsioen gaineko arau lotesleak ezartzen dituzte eta herri hartzaileetako gobernuen atzerriko zuzeneko inbertsioa (AZI) arautzeko ahalmena murrizten dute. Akordio horien bidez AZIa handitzen denik ez dago frogatuta, are gutxiago enplegurik eta aberastasunik sortzen duenik ezartzen den herrietan. AZIa jasotzen duten herri gehienetan enplegu gutxi sortu da, eta soldatek ez dute langileen kontsumo-gaitasuna gainditu. Sortu diren lanpostu gehienak behin-behinekoak eta soldata urrikoak dira.

Integrazio ekonomikoak ez die berdin eragiten pertsonei eta herriei. Esaterako, Ipar Amerikako Merkataritza Askerako Hitzarmenak (NAFTA, ingelesez, –North American Free Trade Agreement–) eragin desberdinak izan ditu Mexikon. Kalkuluen arabera, NAFTArik gabe Mexikok % 40 atzerriko inbertsio gutxiago izango luke, eta esportazioek % 25 egingo lukete behera. Dena dela, hitzarmen horrek eragin kaltegarria du lanpostu-sorkuntzan: nekazaritza-sektoreak milioi bat eta hirurehun mila lanpostu inguru galdu ditu, eta manufaktura-sektorearen hazkundea oso eskasa da. Zerbitzuek, berriz, jende askori ematen diote lana, baina soldata eta produktibitate urriko lanbideak izaten dira (CGD, 2006). Merkataritza librea ez da garapena bultzatzeko erremedio magikoa, aise sortzen baititu irabazleak eta galtzaileak.

Laneko mugikortasuna gutxi aipatzen da MAIetan. “Oro har, merkantziak, enpresak eta kapitala libre ibil daitezke herrialde batetik bestera, baina ez pertsonak”[26]. Adibidez, Ipar Amerikako merkataritza askeko gunean (NAFTA) ez da gai horretaz mintzatzerik izan, ekonomia batzuetan zein besteetan eragin handiak baititu. Mexikoko ekonomian, dibisa-sarreraren ehuneko handia da AEBra joandako immigranteek bidaltzen duten dirua. AEB eta Kanadako ekonomietan, Mexikoko eskulan merkeak (ilegalak, gehienak) iparramerikarrentzako erakargarriak ez diren sektoreetako langile-eskasia konpontzen du. Lanarena gai zaila da, eta MAIetan apenas negoziatzen den. Migrazioa ez da akordioetan sartzen, eta ez dago apenas modurik garapen bidean dauden herrietatik herri aberatsetara lege barruan emigratzeko.

[26] Informazio gehiago behar baduzu, gomendatzen dizugu: GLOBALIZAZIOAREN ALDERDI SOZIALARI BURUZKO MUNDU BATZORDEA (2004), *Por una globalización justa, crear oportunidades para todos: comisión mundial sobre la dimensión social de la globalización.* www.ilo.org/public/spanish/wcsdg/index.htm

MAletan kontuan gutxi hartzen den beste gai garrantzitsu bat hitzarmen eta politika komertzialetan herritarrek behar duten partaidetzarena da. Oso mugatua da partaidetza. Gizarteak parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen du, baina hitzarmenen sinaduran eragin handirik ez du izan gehienetan. Merkataritza demokratizatzea premiazko eginkizuna da. Gizartearen parte-hartzeak orain arte hartutako erabakien eta merkataritza akordioen bidea alda lezake.

Hego Amerikako historia hurbilean, berebiziko garrantzia izan dute Merkataritza Askeko Hitzarmenak direla-eta sortutako mugimendu sozialek, zehazki Ameriketako Merkataritza Askeko Gunearen inguruan (AMAG) sortuak.

AMAG dela eta, ikuspegi kritikoa hedatu da kontinente osoan, eta, protesta ez ezik, integrazio-modu alternatiboak ere ekarri ditu. AMAGen inguruan, kontinente osoko taldeak batzen dituen mugimendu bat sortu da, baita munduko beste hainbat lekutako, herri garatuetako eta garapen bidean daudenetako taldeak ere. Gehiengoari onuragarri izango zaizkion integrazio- eta asoziazio-erak badirela uste duen jendeak dihardu talde horietan.

Ez aurrera ez atzera dago AMAGen sinadura, nahiz eta Hego Amerikako zenbait gobernuk eta, batez ere, AEBkoak bultzatzen duten. Negoziaketetan eragina izatea eta momentuz horiek aurrera ez egitea arrakasta handia izan da gizarte-mugimenduentzat. Aldebiko itunek aurrera egitea da, ordea, arriskua. AEB eta Hego Amerikako herrietako bakoitzarekin, banaka, hitzarmenak sinatzeko etengabeko presioak ahuldu egiten du blokearen jarrera. Mugimendu sozialen indartzea eta MAIek Hego Amerikako gizartean duten eraginen gaineko salaketa etengabea eskatzen du egoerak[27].

Eta Europako Batasuna?

Aldebiko negoziaketetan, Estatu Batuetatik bereizten saiatu zen Europako Batasuna. EBren diskurtsoak nabarmendu zuen akordioen helburua ez dela merkataritza soilik, lankidetzak eta elkarrizketa politikoak ere badutela hor lekurik. Aldebiko akordioetan –adibidez, Hego Amerikan– beste helburu batzuk ere ageri

[27] Gai honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, ikus hemen Aliantza Sozial Kontinentalaren agiriak: www.asc-hsa.org

dira; besteak beste, AEBk eskualde horretan duen agintea orekatzea eta EB merkatu horietatik kanpo ez geratzea. EBrekiko aldeko hitzarmenek azkartu egin dute merkatuen liberalizazioa merkataritzari eta inbertsioei dagokienez, eta EBri pribilegio berri batzuk ekarri dizkiote MMEk alde anitzetatik blokeatuta zeuzkan zenbait esparrutan.

Bultzatzen ari diren MAI eta aldebiko hitzarmenetatik, Lankidetza Ekonomikoko Itunei (EPA, ingelesez) erreparatuko diegu. Europako Batasuna ari da EPA sustatzen Afrika, Karibe eta Ozeano Bareko (AKOB) 75 herrialderekin.

Akordio horiek, merkataritza askeko hitzarmen guztiek bezala, merkatuaren liberalizazioa dute xede. EPAen kalkuluen arabera, hamar urteren buruan % 100 zabalduko dira Europako merkatuentzat, eta % 80 AKOBentzat. Lehen begiratu batean AKOBeko herrialdeentzako hitzarmen onuragarria iruditu, ez dezagun ahantzi badirela EBn arantzelez besteko hesi protekzionistak (neurri fitosanitarioak, adibidez). Gainera, "arantzelen mugak dituzte zerga-iturri nagusi AKOBeko gobernuek, eta hazten ari den industria edo oinarrizko nekazaritza-produktuak babesteko tresna bakarra. Herri horiek ez dute gaitasun politikorik eta ekonomikorik beste tresna batzuk erabiltzeko (laguntzak, adibidez)" (NEKAZARITZAKO MUNDU FOROA, 2007).

Akordio horiek eragin handia izan dezakete negoziaketak sinatzen dituzten eta garapen bidean dauden herrietako nekazaritza-sektorean. AKOBeko herriek Europako Batasunera egiten dituzten esportazioek arantzelez gaindiko mugei, kuotei eta laguntzei aurre egin beharko diete. Herri horietako industria-sektorea –ahula eta oso berria oraindik– bere sektore estrategikoak babesteko arantzelik gabe aurkituko da. EPAek badute eragina herri txiroetako esparru politikoan ere, eskualdeka bildu eta talde gisara tinkoago negoziatzeko ahalmenean.

EBko negoziazio-aginduaren arabera, akordio hori 2007ko abenduan zen sinatzekoa, EB eta Afrika arteko Lisboako gailurrean. Azkenik, EPAren gehiegizko klausulei Afrikako herriek jarritako eragozpenek luzatu egin zuten negoziazioa.

8. MGHren gai nagusia ez da zenbat merkataritza-hitzarmen sinatzen dituen herri jakin batek, baizik eta benetako aldaketa eragiteko behar den nazioarteko lankidetza. Herrialdeek eurek hautatu behar dute beren lehentasuna: nazioarteko lankidetza ala garapena.

4. koadroa. Merkataritzarekin lotutako kanpaina eta informazio	
Zero Pobrezia	www.pobrezacero.org
Bidezko Merkataritza	www.maketradefair.org
Hirugarren Munduko Sarea	www.redtercermundo.org.uy
Arropa Garbia Kanpaina	www.ropalimpia.org
Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren Behatokia	www.observatoriorsc.org
Genero eta Merkataritzari buruzko Nazioarteko Sarea	www.generoycomercio.org
Globalizazioari buruzko Nazioarteko Foroa	www.ifg.org
EPAk geldiarazteko ekimena	www.stopepa.org
Kosta Rikako Komertzio Askerako Hitzarmenaren aurkako Kanpaina	www.notlc.com
Globalizazioan lanaren behatokia	www.observatoriodeltrabajo.org
Setem Hego Haizea	www.setem.org/euskadi

IV. Kanpo-zorra kitatzea[28]

Kanpo-zorra arintzeak ere berebiziko garrantzia du, garapenerako baliabide ekonomikoak askatzen baititu (NBE, 2002). 1970eko hamarkadatik dator zorraren zama, petrolioaren prezioek goraka egin zuten garaitik alegia. Herrialde petrolio-ekoizleek diru-sarrera handiak izan zituzten sasoi hartan (petrodolarrak). Bankuek soberakin horiek inbertitu beharra zeukatenez, kontrolik gabeko kreditu-eskaintza abiatu zen garapen bidean zeuden herrialdeetarantz. Lehengaien prezioen jaitsierak eta nazioarteko merkatuaren likideziarik ezak (petrolioaren prezioa jaitsi egin zen, eta AEBk nabarmen igo zuen gastu publikoa) interes-tasen igoera handia ekarri zuten 1980ko hamarkadaren hasieran. Hori zela eta, herrialde pobreek ezin zuten ez zorra ez haren interesik ordaindu. *Zorraren krisia* deitu zitzaion fenomeno horri.

[28] Gaia sakonago jorratu nahi izanez gero, hemen dituzue atal hau idazteko erabili ditugun iturriok: CELORIO, GEMA eta LÓPEZ DE MUNIAIN, ALICIA (2007), 90. or. eta hurrengoak; NOLTE (2008b) eta Globalizazioko Zorraren Behatokiko weba: www.observatoriodeuda. org

Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF), egoerari aurre egiteko asmoz, Egiturazko Doikuntza Programak ezarri zizkien herri zordunei (gastu publikoa jaistea, merkatuen liberalizazioa, enpresa publikoen pribatizazioa...), zorra kitatzeko baliabideak sor zitzaten. Programa horiek gogor murriztu zituzten politika propioak ezartzeko gobernuen ahalmenak, baita gastu soziala ere.

Diru-sarrera urriko herriek 27.000 milioi dolar inguruko dohaintzak jaso 2003an, eta ia 35.000 milioi ordaindu zituzten, urte berean, zorra zela eta. Saharaz hegoaldeko Afrikako zorra 220.000 milioi dolar igo da, 1970etik hona maileguan eskatu dituen 320.000 milioi dolarrengatik 296.000 milioi ordainduak dituen arren (SOCIAL WATCH, 2006).

Zorraren birnegoziazioa

Zorraren hartzekodunen artean daude zenbait banku pribatu (*zor pribatua*), ekonomikoki garatutako herriak (*aldebiko zorra*, esportazio-krediituetatik datorrena) eta nazioarteko finantza-erakundeak –Munduko Bankua, NMF eta eskualde bakoitzeko bankuak– (*alde anitzetako zorra*). Zordunak, berriz, herri txirotuetako gobernuak dira. Maileguan hartutako zenbatekoa eta sortutako interesak itzuli behar dituzte. Igo egin dira zorraren zenbatekoak, eta egoera paradoxiko bat sortu da: herri zordunek, nahiz eta hartutakoa ordaindurik izan, oraindik ere hartzekodunei dirua zor diete, zenbaitetan hasieran utzitakoa baino gehiago, sortutako interesengatik edo lehenbiziko mailegua ordaintzeko finantziazio berriak eskatzeagatik.

Azken 20 urteotan, herri txirotuenek 1980ko zorra zazpi aldiz ordaindu dute, eta oraindik ere zenbateko haren laukoitza zor dute (www.observatoriodeuda.org).

Zor horietako asko berriz negoziatu behar izan dituzte. Pariseko Klubak berebiziko esku-hartzea izan du zeregin horretan. Foro informala da, non herri hartzekodunek, elkarrekin koordinatuta, herri zordun bakoitzaren egoera konpontzen saiatzen baitira. 1983az geroztik, 505 mila miloi dolar birnegoziatu dituzte.

Dena den, Pariseko Klubaren erabakiak bestelako eragile batzuen mende daude, nolabait: NMF eta G-8ren mende, alegia. NMF ezinbesteko erakundea da, gainerako herri hartzekodunek harekin aldez aurretik hitzarmena egitea eskatzen dute eta (doikuntza- eta aldakuntza-programak). G-8ko herriek dute eraginik handiena NMFren erabakietan, haiek egiten dituzte eta diru-ekarpenik handienak.

Erantzunkidetasuna

Herri aberatsek eta Nazioarteko Finantza Erakundeek (NFE) erantzukizun handia dute zorraren krisian, zeinak milioika pertsona sartzen baititu pobreziaren eremuan. Mailegu ezegokiak eta bidegabeko baldintzak direla medio, ezinezkoa zaie herri pobreei zorra ordaintzea. Justiziak eskatzen du aztertzea zorra nola sortu zen, zilegi ote den eta zer eragin duen herri zordunetan.

Zorra, gorrotagarria eta gizalegearen kontrakoa[29]

Kasu batzuetan, gobernu ustel eta zapaltzaileek sinatu izan dituzte kreditu-kontratuak, interes geoestrategikoak zirela medio, eta herritarren aurka erabili zen gero dirua (Hego Afrikako apartheida, adibidez), edo agintarien probetxurako (Mobutu Sese Sekok, Zairen; Somozak, Nikaraguan; Marcosek, Filipinetan...). Beste batzuetan, bideragarritasun tekniko edo finantzarioko azterketarik ez egiteagatik porrot egin zuten proiektuak bultzatu ziren (adibidez, Bataango zentral nuklearra, Filipinetan: lurralde sismiko batean eraiki zutenez, ez zuten sekula martxan jarri). Beste zenbaitetan, mailegu-emailearen merkatu- eta ekonomia-interesengatik eman izan da kreditua, mailegu-hartzailearen interesak kontuan hartu beharrean (ikus laukitxoan Norvegiaren kasua). Gorabehera guzti horiek egonik ere, hartzekodunek zorra ordaintzea eskatzen dute. Kasu horietan guztietan, herri zorduneko biztanleek zorra kitatzeko obligazioa dute. Horretarako, beren oinarrizko beharrak eta garapena bazterrera utzi behar izaten dituzte, itzuli behar duten maileguaren onurarik ikusi gabe. Herriak ez dira zor horiek ez ordaintzera ausartzen, beren izen ona zikindu eta mailegu gehiagorik edo atzerriko inbertsiorik ez jasotzeko beldurrez.

Duela gutxi, bost herrialderen 80 milioi dolarreko zorra kitatu du Norvegiak, bere kasa eta baldintzarik gabe. Porrot egin duten krediuetan duen erantzunkidetasuna bere gain hartu du Norvegiak, eta zorraren bidegabekeria aitortu. Izan ere, 70eko hamarkadako ontzi-esportazioak eragin zuen zorra. Norvegiak aitortu du esportazioaren helburua ez zela herri horien garapena sustatzea, baizik eta krisian zegoen Norvegiako ontzigintza suspertzea. Horrekin batera, zenbateko horiek GLOean gehiago ez sartzea erabaki zuen Norvegiak.

[29] Gai honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, ikus: UGARTECHE eta ACOSTA (2003), 7-14 orrialdeak.

Beste zor batzuk

Kredituak itzultzeko ez ezik, herri zordunekin duten harremana oso-osorik aztertu behar lukete Iparraldeko herrialdeek. Izan ere, badira Iparraldeko herriek Hegoaldekoei ordaindu ez dizkieten beste zor batzuk, ekonomia- eta kontsumo-ereduaren ondorio. Bada kolonizazio-garaitik datorren zor historiko bat, Hegoaldeko herrietako giza eta natura-baliabideen lapurretak sortua. Bada zor ekologikorik ere Hegoaldeko baliabideak ustiatzeagatik (egurra, mineralak, etab.), energia-kontsumoagatik eta ingurumena kutsatzeagatik, bio-lapurretarengatik, Hegoaldeko lurrak kutsatu eta hondakinak metatzeko erabiltzeagatik... Eta bada zor sozialik ere, Hegoaldeko herrietako langileek jasaten duten esplotazioagatik, eskubide laboral eta sozialak ez baitzaizkie bermatzen. Enpresa transnazionalek (Iparraldekoak, gehienbat) ateratzen dute etekina esplotazio horretatik.

Arbitrajea

Nazioarteko kredituak eskuratzea eta zorduntzea ez da, berez, arazo. Joko-arau argirik eta kontrol-mekanismorik ez duen nazioarteko sistema honetan datza krisia. Zenbaiten iritziz, nazioarteko arbitraje-sistema bat –neutrala eta independentea, bidezkoa eta gardena– ezarri behar zaie alderdi guztiei, zorraren jasangarritasuna eta legitimotasuna aztertu eta negoziazio-arau garbiak finkatzeko[30].

Zorraren jasangarritasuna

Zorra eta haren interesak ordaintzeko herri askok egin behar izaten duten gastu izugarria dela eta, oinarrizko zerbitzuetarako gastuak murriztu egin behar izaten dituzte; esaterako, osasuna, hezkuntza, ur edangarria eskuratzea, enplegu-sorrera... Pobrezia murrizteko gizarte-politikak egiteko ezintasuna beste oztopo bat da MGHak lortzeko.

> Zorra ordaintzeko erabili den diruarekin 1.300 milioi laguni ur-hornikuntza jar lekieke.

[30] Informazio gehiago nahi baduzu, ikus UGARTECHE eta ACOSTA (2003), 22-24 orrialdeak.

Zein litzateke neurririk egokiena herri batek zorra ordaintzeko duen gaitasuna jakiteko? 8. MGHren xedeetako bat da "garapen bidean dauden herrien zorrari nazioarteko eta tokian tokiko neurri orokorrekin aurre egitea, epe luzera zorra jasangarria egiteko". Ondasun eta zerbitzuen esportazioekiko zorrak duen portzentajea, horra zer den zorraren jasangarritasuna (15. xedea eta 44. adierazlea).

Zorraren jasangarritasuna neurtzeko era hori ez dirudi guztiz egokia denik, gobernua baita (eta ez esportatzaileak) zorra ordaintzen duena. Beraz, hobe litzateke zerga-karga aztertzea. Gainera, herriaren premiei eta garapen sozio-ekonomikoan zorra ordaintzeak duen eraginari entzungor egiten die. Milurteko Gailurra + 5-erako eratutako txostenean NBEko idazkari nagusiak, Kofi Annan, zorraren jasangarritasuna zehaztea eskatu zuen. Hartara, MGHak lortzeko beharreko baliabideak ziurtatu ondoren soilik kitatu beharko luke zorra zordunak. Horretaz gain, ez du kontuan hartzen gobernua dela, eta ez esportatzaileak, zorra ordaintzen dutenak.

Zorraren truke, garapenerako baliabideak

Zorra kitatu den herrietan, nabarmenak izan dira emaitzak:

- Mozambikek, umeentzako doako txertaketa ezarri du.
- Tanzaniak, lehen hezkuntzarako ordainsariak kendu egin ditu; ondorioz, asistentzia % 66 hazi da.
- Ugandan, 2,2 milioi laguni ur edangarria jarri die eskura zorra kitatu izanak.
- Malawi, berriz, 3.600 irakasle prestatzen ari da, eta eskola ordainsariak kendu egin ditu.

Oro har, kitapenak ez dira kontabilitate-egokitze hutsa besterik izaten, zordunak jasan ezin dituen zorrak baitira horiek. Herriak ez ditu ordaintzen, eta ezin izango ditu inoiz ordaindu. Hortaz, ez du zentzurik aktibo gisa edukitzeak. Zorra kitatzeak, herriak zama izugarri batetatik askatzen baditu ere, ez ditu garapenerako baliabide berriak sortzen, hura kitatzean ez baitzegoen beste zerbaitetan inbertitu daitekeen diru-fluxurik.

Bada zorra garapenarengatik trukatzeko aukera ere. Gobernu zordunak, zorra kitatuta ez badago, zorra ordaintzeko diruaren parte bat garapenean inbertitzea-

ren truke zorra ezeztatzean datza (edo garapenaren alderi jakin batzuetan inbertitzean, hala nola hezkuntzan, osasunean...).

Trukea ondo egiteko, baldintza batzuk bete behar dira. Hauek, besteak beste (ENTRECULTURAS eta beste batzuk, 2005):

- gizarte zibileko erakundeek parte hartzea trukeak sortutako garapen-planen diseinuan, segimenduan eta ebaluazioan. Parte-hartze hori benetakoa izateko, beharrezkoa da informazioaren kudeaketa gardena izatea.

- garapenerako baliabide osagarriak izatea, emailearen GLOari (zorra arintzeak GLOaren barne-baliabideak ez murriztea) eta zordunak garapenerako erabiltzen dituen baliabideei dagokienez (baliabide berriak herriaren garapen-planean ezarritako lehentasunei moldatzea eta gastu berria izatea, hau da, herriak egindako esfortzuak ez ordezkatzea, funtsak beste helburu batzuetara desbideratuz).

Espainiak protagonismo handia hartu du azken urteotan, Hego Amerikako hainbat herrialderekin sinatu baititu "hezkuntza zorraren truke ekimenak (Argentina, Ekuador, Nikaragua, Bolivia, Guatemala, Peru...). Sistema horren bitartez askatutako funtsak hezkuntza-erakundeetarako eraikuntzak egiteko, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta arlo horretako beste gai batzuetarako erabiliko dira. Truketik sortutako inbertsio berri horiek berriz ere espainiar ekonomiaren mesederako erabiliko ez direla ziurtatu behar da.

Zor handia duten herri txiroen zorra murrizteko ekimena

8. MGHa (13. xedea, 42. eta 43. adierazleak) zor handia duten herri txiroen zorra murrizteaz (HIPC ekimena, ingelesez: Heavily Indebted Poor Countries).

1996an abiatu zuten HIPC ekimena Munduko Bankuak eta Nazioarteko Moneta Funtsak. Ondoren, 1999an berrikusi zuten. Helburua zen erakunde horiekiko herrialde pobreenek zituzten zorrak kitatzea. Baina kitapen horiek ez dira *doakoak* izaten. Hautagarri izateko, gutxienez sei urterako egonkortasun makroekonomikoa ziurtatu behar dute herriek, NMFk onartutako egokitze-programen bitartez. "Erabakigunea" deritzon une horretatik aurrera, nazioarteak hitzematen du aurrez adostutako jasangarritasun-tarte bateraino murriztuko duela zorra. Zorra behin-behingoz arintzen du sistema horrek. Kitapena (gailurra) ez da handik hiru urtera arte gauzatuko, egokitze-programetan eta ezarritako politika-berrikuntzetan emaitza onak erakutsi arte herriak.

HIPCen 99ko berrikuspenak berrikuntza hau ekarri zuen: pobrezia murrizteko estrategia eratu behar dute herrialdeek (Poverty Reduction Strategy Paper, PRSP). Dokumentu hori partaidetzaren bidez eraiki behar da, herrialdeko erakunde sozialak eta ekonomikoak zein nazioarteko finantza-erakundeak partaide direla. Pobrezia murrizteko eta hiru urterako ekonomia hazteko makroekonomia, gizarte- eta egitura-politikak zehazten ditu. Hala ere, eta nahiz eta herri guztientzat berdina ez den, urte horietako esperientzia ez da zirudien bezain emankorra izan. Partaidetza-mailak ezberdinak dira, herrien arabera. Kasu askotan, gizarte zibileko erakundeak kexatu egin dira haien eskariak ez direlako kontuan hartu. NMFak eta MBak eragin handia dute, oraindik ere, herrien politiketan.

2005ean, mobilizazioak izan ziren mundu osoan 2015erako MGHak lortzeko herri txiroenen zorra kitatzea eskatzeko, besteak beste. Mobilizazioak bultzatuta, Alde Anitzeko Zorra Arintzeko Ekimena (MDRI, ingelesez –Multilateral Debt Relief Initiative–) sortu zuten G-8ko herriek. Ekimen haren arabera, NMF, MB eta Afrikako Garapen Funtsak HIPC ekimenaren osorik betetzen zuten herrien (18, une hartan) zorraren % 100 kitatzeko konpromisoa hartu zuten. 2007an, Garapenerako Banku Interamerikarrak ekimenarekin bat egin zuen.

HIPC ekimenak zorraren zama nabarmen murriztu arren, kitapena partziala da[31]; prozesua, behar baino motelagoa (10 urte baino gehiago, lortu duten leheneko 22 herrientzat[32]); herri gutxi batzuei bakarrik egiten die mesede; ez ditu kontuan hartzen errenta ertaineko herriak (22 herri bakarrik, 2015ean MGHak lortzeko zorraren % 100a kitatzea beharko duten 62 herriekin alderatuta); baldintza batzuk ezartzen ditu eta ez du erantzukizunik bereganatzen.

Gure inguruari dagokionez, Kanpo Zorraren Kudeaketa Arautzeko Legea onartu zuten Gorte Orokorrek 2006an. Lege horrek zenbait aurrerapen dakar pobreziaren aurkako borrokan: zorra sortzen duten tresnak berritzeko proposamena egiten du (GLF krediduak eta CESCE esportazio-krediduak), datuei eta jarraitu beharreko estrategiei buruz Kongresua informatzeko konpromisoa hartzen du, eta zorra bihurtzeko ekimenetan gizarte zibilaren parte-hartzea aurreikusten du. Dena dela, kasu honetan ere ez dago erantzunkidetasunik, ezta herri txiroen eta zordunduen zorra kitatzeko konpromiso garbirik ere[33].

---

[31] Ez dira herrialde horietako zor guztiak, baizik eta parte hartzen duten finantza-erakundeei dagozkienak (guztizkoaren herena). Erakunde horiekiko zor guztiak ere ez dira, baizik eta 2007ko abenduaren 31n zeuden saldoak, hortik aurrerako zorpetzeak kontuan hartu gabe.

[32] Iturria: www.imf.org/external/np/exr/facts/hipc.htm 2007ko iraileko datuak.

[33] Web hauetatik hartu dugu informazioa: www.intermonoxfam.org eta www.observatoriodeuda.org

5. koadroa. Kanpo zorrarekin lotutako kanpaina eta informazio	
Zorraren behatokia	www.odg.cat
Nork zor dio nori	www.quiendebeaquien.org
Eskubide, garapen eta zorraren gaineko Hego Amerikako Sarea	www.latindadd.org
Zorraren eta garapenaren gaineko Afrikako Sarea	www.afrodad.org
Zorraren eta garapenaren gaineko Europako Sarea	www.eurodad.org
Hirugarren Munduko Zorra Kitatzeko Batzordea	www.cadtm.org
Dudarik gabe, zorrik gabe kanpaina	www.sindudasindeuda.org
Ekologistak Martxan elkartea	www.ekologistakmartxan.org

V. Herritar antolatuak: haien eskuetan badago, zure esku dago

Hitzarmen bat dira MGHak. Garapen bidean dauden herri guztiek ez dute nahikoa aurreratu, baina, oro har, garapen bidean dagoen mundua betetzen ari da dagokion partea. Ezin gauza esan herri aberats eta boteretsuei buruz, batez ere nazioarteko merkatu-sistemaren mailakatzeari eta garapenaren aldeko giro ekonomiko orokorra sortzeari dagokionez. [...] Borondate politikoa ez da aldatzen nazio eta eskualdeetan herria mugitzen ez bada, eta, orduan ere, agintariei kontuak argitzeko eskatzen zaienean bakarrik gertatzen da aldaketa. Nazioarteko erakundeen deialdiek baino askoz ere garrantzi handiagoa du helburuek herritarren laguntza kritiko eta masiboa izatea, "boto-sortzaile" bihurtzea[34].

[34] Gizarte Zibilaren Foroan, Brasilen, 2004ko ekainaren 14an idazkari nagusiak egindako adierazpenak. www.unctadxi. org/templates/Press____929.aspx

2000. urtean, 2015erako MGHak lortzeko konpromisoa hartu zuten 189 gobernuk. Gure agintarien esku dago helburu horiek betetzea. Baliabide ekonomiko eta teknikorik badago. Borondate politikoa falta da, soilik. Herritar askok eskatuz gero, ordea, aldarazi daiteke borondate politikoa. Pobrezia, ezberdintasuna eta injustizia amaiarazteko erabakia gure agintarien esku ez ezik, gure esku ere badago. Aski dugu, horretarako, gure aldaketa-ahalmenaz ohartzea.

Eskubideak aldarrikatzeko borrokak geldoak izaten direla diosku historiak. Baina esaera zaharrak dioenez, "arian, arian xehatzen da burdina". Hogeita hamar urte behar izan ziren Afrikan apartheida kentzeko; hamar urte behar izan ziren Estatu Batuetan arraza-diskriminazioa ezabatzeko; Espainian, hogei urte baino gehiago emakumeek boto-eskubidea izateko...

Testuan ikusi dugunez, gobernuburuei laguntza gehiago, kanpo zorra kitatzea, guztiek hezkuntza eta oinarrizko botikak eskura izatea, justizia komertziala... eskatzeko kanpaina ugari izan dira azken hamarkadetan. Ekimen horiek emaitzarik ekarri dute: erakunde publikoek aurrekontuen parte bat lankidetzari, herri txiroenen zorra ezeztatzeari... ematen diote. Baina ez gara lorpen txiki horiekin kontentatzen, pobreziak, ezberdintasunak eta eskubide faltak milioika pertsonen garapena galarazten dute eta. Horregatik, herritarrak sentsibilizatu eta gobernuburuen konpromiso sendoagoa bultzatzeko kanpaina berriak ari dira abiarazten.

2005ean, Pobreziaren aurka Jarduteko Mundu-deia sortu zen (GCAP, ingelesez –Global Call to Action Against Poverty–). Gobernuburuei hitza betearaztea eta pobrezia amaiarazteko pausoak ematea dira kanpainaren helburuak. Milaka erakunde (GKEak, sindikatuak, erakunde erlijiosoak, talde komunitarioak...) elkartu ziren justizia komertziala, zorra kitatzea eta laguntza gehiago eta hobea aldarrikatzeko, 2015erako MGHak bete daitezen. Hemen, *Zero Pobrezia* izena izan zuen kanpainak (www.pobrezacero.org).

Mundu osoan milioika lagunek kanpaina horren bidez egindako presioari esker, pobreziaren aurkako borroka nazioarteko agendan sartu zen, eta laguntza gehitzeko eta zorra kitatzeko konpromiso batzuk hartu ziren. Alabaina, konpromiso horiek, nahikoa ez izateaz, ez dira betetzen. Horregatik, informazioa, trebakuntza eta ekintza beharrezkoak dira gaur egun ere, gure gobernuak presionatzen eta zaintzen jarraitu behar dugu, era konstruktiboan, hartutako konpromisoak bete ditzaten.

Ezin amaitu herritarren ekimena aldarrikatzen duen atala hau hausnarketa bat egin gabe honetaz: pobrezia kentzeko, aldaketa politikoak baino zerbait gehiago behar da. Herri aberatsetako herritarrok gure kontsumo-estiloak eta naturarekiko nahiz besteekiko harreman-ereduak berrikusi egin behar ditugu. Nahiz eta nazioarteko lankidetza-konpromisoak bete, nahiz eta arauak bidezkoagoak izan, gure buruari galdetu behar diogu nazioarteko ordena zuzenago eta gizatiarrago bat ezartzea posible den gure baitan aldaketarik egin gabe. Aldaketa horrek zenbait gauza alde batera uztea eskatuko digu, agian, baina gure bizimoduan aukera gehiago izatea ere bai. Gure iritziz, aldaketarik gabe ezin da. Aldaketa hori gauzatzeko, munduari eta gizon-emakumeei beste era batera begiratzen ikasi behar dugu berri bat behar da.

Bibliografia

AGUIRRE, R. eta PÉREZ, M. *(2007), Siete años del Tratado Unión Europea-México. Una alerta para el sur global,* Documentos de debate. Regionalismos alternativos, 2007ko ekaina, Transnational Institute, Red Mexicana de Acción frente al Libre Comercio e ICCO.
www.rmalc.org.mx/documentos.htm

AMYCOS, *Me pregunto ¿qué es la Ayuda Oficial al Desarrollo?*, "Me pregunto qué es...", Informazio Fitxen Bilduma, 10. fitxa.
www.amycos.org

ARELLANO, J. (2007)*, Onuragarria da behartsuentzat NBE-ren erreforma? Uneko erreforma-proposamenen ebaluazio kritikoa,* ALBOAN Ikerketa Bilduma, 8.zk.
www.alboan.org

BURALL, S., MAXWELL, S. & ROCHA MENOCAL, A. (2006), *Reforming the international aid architecture: options and ways forward,* Overseas Development Institution, working paper 278.
www.odi.org.uk/publications/working_papers/wp278.pdf

CELORIO, GEMA eta LÓPEZ DE MUNIAIN, ALICIA (2007), *Diccionario de Educación para el Desarrollo,* Hegoa, Nazioarteko lankidetza eta garapenaren gaineko ikerketa ikastegia.
www.hegoa.ehu.es/es/educacion/publicaciones_de_educacion_para_el_desarrollo

CENTER FOR GLOBAL DEVELOPMENT (2006), *Global Trade and Development,* Rich World, Poor World: A Guide to Global Development.
www.cgdev.org/content/publications/detail/2853

COLLIER, P. (2005), *Is aid oil? An analysis of whether Africa can absorb more aid,* Centre for the Study of African Economies, Department of Economics, Oxford University.
http://users.ox.ac.uk/~econpco/research/pdfs/Is-Aid-Oil.pdf

COMMISSION OF THE EUROPEAN COMMUNITIES (2007), *EU Code of Conduct on Division of labour in Development Policy,* Communication from the Commission to the Council and the European Parliament.
http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2007:0072:FIN:EN:PDF

CONCORD (2007), *Hold the Applause! EU governments risk breaking aid promises,* www.concordeurope.org/Files/media/internetdocumentsENG/Aid%20watc/1-Hold_the_Applause.FINAL.pdf

ENTRECULTURAS, FEDERACIÓN INTERNACIONAL FE Y ALEGRÍA, RED JUBILEO 2000 PERÚ, FUNDACIÓN SES, AYUDA EN ACCIÓN e INTERMÓN OXFAM (2005), *Educación para todos y todas: la deuda pendiente.*
www.entreculturas.org/node/512

GARAPENARI LAGUNTZEKO BATZORDEA (2007), *Development aid from OECD countries fell 5.1% in 2006,* OCDE.
www.oecd.org/document/17/0,2340,de_2649_33721_38341265_1_1_1_1,00.html

GARAPENERAKO BATZORDEA (2007), *Munduko Bankuko lehendakariaren oharra Garapenerako Batzordearen 75. bilerarako,* DC2007-001, Munduko Bankua eta Nazioarteko Moneta Funtsa.

GARAPENERAKO GKE-EN KOORDINAKUNDEA – ESPAINIA (CONGDE 2006), *AOD Hoy, Discurso y Realidad.*
http://autonomicas.congde.org/documentos/222_1.pdf

GÓMEZ, F. (2008), *Giza Eskubideak nazioarteko finantza- eta merkataritza-erakundeetan txertatzen: lorpenak eta aukerak,* ALBOAN Ikerketa Bilduma, 7.zk.
www.alboan.org

INTERMÓN OXFAM (2007), *100 días. Las negociaciones comerciales amenazan el compromiso de España con África.*
www.intermonoxfam.org/page.asp?id=2045&ui=8690

INTERNATIONAL DEVELOPMENT ASSOCIATION (2007), *Aid architecture: an overview of the main trends in official development assistance flows. http://web.worldbank.org/WBSITE/EXTERNAL/EXTABOUTUS/IDA/0,contentMDK:21351637~pagePK:51236175~piPK:437394~theSitePK:73154,00.html*

JOINT EUROPEAN NGO REPORT (2006), *EU aid: genuine leadership or misleading figures? An independent analysis of European Governments' aid levels.* www.concordeurope.org/Files/media/internetdocumentsFRE/5_Presse/Communiques/2006/NGOBriefing.pdf

KRUSE, T. eta RAMOS, C. (2003), *Agua y privatización: beneficios dudosos, amenazas concretas,* Informe Social Watch 2003. www.socialwatch.org/es/informeImpreso/pdfs/bolivia2003_esp.pdf

Laguntzaren Eraginkortasunaren gaineko Parisko Adierazpena (2005). www.aidharmonization.org/ah-overview/secondary-pages/editable?key=205

MATHABA NEWS NETWORK (2007), *Monsanto-India: alimentos y cultivos genéticamente modificados. Amenazan con el control mundial de la genética,* Biodiversidad en América Latina. www.biodiversidadla.org/content/view/full/32489

MUNDUKO LANDA-FOROA (2007), *MLFren jarrera Lankidetza Ekonomikoko Hitzarmenak direla eta.* www.ruralforum.net/datos/files/documentos/228933628_1.doc

NBE (2002), *Informe de la Conferencia Internacional sobre la Financiación para el Desarrollo.* www.un.org/esa/ffd/indexDocuments.htm

NOLTE, M. (2008a), *Garapenaren finantzaketarako nazioarteko baliabideak: Tobin tasa eta "Nazioarteko Finantza Tresna" (IFF),* ALBOAN Ikerketa Bilduma, 6.zk. www.alboan.org

NOLTE, M. (2008b), *Zor jasangaitza,* ALBOAN Ikerketa Bilduma, 5.zk. www.alboan.org

OCDE (2007), *Aid effectiveness. Survey on Monitoring the Paris Declaration, Overview of the Results.* www.oecd.org/document/20/0,3343,en_2649_15577209_38521876_1_1_1_1,00.html

OXFAM INTERNATIONAL (2006), *Patentes contra pacientes. Cinco años después de la Declaración de Doha.*
www.oxfam.org/es/policy/briefingpapers/bp95_patentsvspatients_061114

OXFAM INTERNATIONAL (2007), *Nuestro futuro por la borda,* Documento informativo de Oxfam.
www.oxfam.org/es/files/bp101_rtas.pdf/download

PAGE, S. (2007), *Policy space: are WTO rules preventing development?* Overseas Development Institute, Briefing paper 14.
www.odi.org.uk/publications/briefing/bp_jan07_policy_space_wto.pdf

PHILLIPS, L., PAGE, S. eta WILLEM, D., *Aid for Trade: What does it mean? Why should aid be part of WTO negotiations? And how much might this cost?* ODI Opinions, n. 61.
www.odi.org.uk/publications/opinions/61_aid_for_trade_dec05.pdf

ROSAS, M. C. (2005), *La relación comercio-desarrollo y la ronda de Doha,* Aldea Mundo, 19. zk., 29-34 orrialdeak.
www.saber.ula.ve/cefi/aldeamundo

SCHROEDER, F. (2006), *Fuentes innovadoras de financiamiento tras la Conferencia de París: el concepto avanza, pero los mayores desafíos persisten,* FES Briefing Paper 13, September.
www.nuso.org/upload/fes_pub/Schroeder.pdf

SHIVA, V. (2007), *El algodón Bt de la empresa estadounidense Monsanto ha empujado a miles de agricultores indios al endeudamiento, la desesperación y la muerte,* Biodiversidad en América Latina.
www.biodiversidadla.org/layout/set/print/content/view/full/29824

SOCIAL WATCH (2006), *Informe 2006.*
www.socialwatch.org/es/informeImpreso/index.htm

UGARTECHE, O. eta ACOSTA, A. *(2003), A favor de un tribunal internacional de arbitraje de deuda soberana,* Documentos de discusión global, D3E, Desarrollo, Economía, Ecología, Equidad.
http://globalizacion.org/docdiscusion/DocDisc1TiadsUgartecheAcostaC.pdf

VANDEMOORTELE, J., MALHOTRA, K. eta LIM, J. A. (2003), *Is MDG 8 on track as a global deal for human development?* Poverty Group, NBGP, Garapen Politiken Bulegoa.
www.sarpn.org.za/documents/d0000464/P441_UNDP_MDG.pdf

Eztabaidarako eta ekintzarako galderak

- Zer elementu berri ikusi duzu testuan?
- Zer alderdik harritu zaituzte?
- Zer gehituko zenuke?
- Egin kontzeptu-mapa bat, eta adierazi hor zergatik ez dagoen garapenaren aldeko mundu-aliantzarik eta gabezia horren ondorioak. Zer ikusten duzu? Konparatu eta erantsi gainerako taldekideen ekarpenak.
- Zein dira talde ahulenak? Zer egin daiteke haien egoera hobetzeko?
- Zure ustez, zer egin dezakezu egoera hori hobetzeko?
- Taldeka, hautatu gai bana eta bildu informazioa dokumentuko atal bakoitzaren amaieran ageri diren kanpainei buruz. Pentsatu nola helarazi informazio hori zuen inguruko jendeari.
- Idatzi iritzi-artikulu bat Hondurasko lekukotasunak iradoki dizunarekin, eta aipatu, bide batez, zer proposatuko zeniekeen Cochabambako biztanleei.
- Bildu informazioa Novartis enpresaren aferari buruz eta idatzi “zuzendariarentzako gutun” bat horri buruzko informazioa emateko eta zure moduko jendearentzako ekintza-proposamenak iradokitzeko.

- Aztertu zenbateraino lagun dezaketen dokumentuko ekintza-esperientziek Milurteko Garapen Helburua betearazten.
- Antzeko kanpaina edo mobilizaziorik bada zure ingurunean?
- Zabaldu zure iritziak eskura dituzun komunikabideetan: prentsa, irratia, Internet...

Honduras: Ura eta ingurumena: herri baten zori berria eraikitzen ari diren iturriak

*Rita Santamaría**

Hondurasko mendebaldean, La Virtud, Mapulaca, Piraera, Virginia, Candelaria, San Antonio, Santa Lucía, Magdalena eta Colomoncagua udalerrietan, Lempira eta Intibucá departamenduen artean, bizi diren 5.000 bat familia kezkatuak daude Lempa ibaian El Tigre presa eraiki behar dutela iragarri zietelako. Eraikuntza-lan hori Hondurasen eta El Salvadorren arteko mugan egingo da, eta 20.000 pertsona baino gehiago lekualdatzea eta artoa, babarruna, basartoa, platanoa eta barazkiak lantzeko lurrak galtzea ekarriko du.

San Antonio da proiektutik gertuen dagoen komunitatetako bat, eta hango biztanleek esan zuten beren jaioterritik kanporatzeaz gain ondare kulturala kentzen dietela, eta beren ondasunen truke emandakoarekin ez zaiela iristen beste toki batean lur-azalera berdina erosteko. *Haur askok jada ez du eskolara joan nahi, jada inork ez du bere etxea konpontzen, hainbeste kostata egindakoa kentzen ari zaielako*. Hala eta guztiz ere, adorez bete dira, eta "Hemen jaio ginen, hemen bizi gara eta hemen hilko gara" goiburuarekin, eta estatuko beste sektore batzuekin batera, arazoen bateratze-lanak egin dituzte "Ura, gure baliabideak eta autodeterminazioa babesten" lehenengo topaketa nazionalean, La Esperanzan, Intibucán, 2006eko uztailaren 7an eta 8an egindako elkarrizketa eta eztabaidetan.

* Rita Santamaria: ERICeko, Hausnarketa, Ikerketa eta Komunikazio Taldea, komunikazio koordinatzailea da. Elkarte honek instituzio ekarpen iraunkor bezala eta Hondurasekо gizarte sektore txiro eta ahulenak gizarte ekitatibo, elkartasunezko eta barneratzaile bat eraikitzerako unean protagonista izan daitezen; ikerketa eta analisia, formazioa eta elkartearen hedapena, giza eskubideen defentsa eta hedapena eta komunikazioa eta kultura sustatzen ditu.

Topaketa hartan, sektore bakoitzak bere arazoa eta egindako borrokak azaldu zituen, eta bukaeran *La Esperanzako* Deklarazioa idatzi zen. Deklarazio horrek akordio hauek ditu:

a) **Bizitza babestea eta erresistentzia:** ura, basoak, meatzaritza, ingurumena eta herriaren bizitza erresistentziako borroka amaigabearekin babestea, eta, horrenbestez, nazioarteko finantza-erakundeen, multinazionalen eta Estatu Batuetako gobernu inperialistaren erabakietatik abiatuta bere politika egituratu duen gobernuari gizarte-mobilizazio iraunkorreko oposizio-egoera adieraztea.

b) **Ura, meatzaritza eta basoak babesteko eta presen kontra jarduteko borroka antolatzea, lurra, hezkuntza eta osasunaren alde borroka eginez eta langileen eskubide** eta lorpenak eta hiriko eta landako populazio txiro eta kaltebera babestuz.

c) Inplementazioaren kontra borrokatzea, eta **edateko uraren eta saneamenduaren esparru-legearen indargabetzea eskatzea**.

d) **219-220 dekretua eta telekomunikazioen esparru-legea indargabetu** ditzaten borrokatzea, nazioarteko finantza-erakundeek eta Hondurasko enpresa pribatu handiak langileen eskubide eta lorpenak zapaltzeko hartutako erabakiaren ondorioa delako, kontratu kolektiboetan gauzatuta.

La Esperanzako esperientziak lagundu egin zuen *Demokraziaren aldeko Hiritar Ituna* osatzeko ekintzak antolatzen. Estatu osoko hogei erakunde baino gehiago biltzen dituen elkarte bat da, eta estatuko mendebaldeko Eliza Katolikoaren oinarrizko sektoreak eta hierarkiako sektoreak hartzen ditu barnean. Elkarte horrek zenbait ekintza eta mobilizazio antolatu eta zuzendu zituen, gobernua presionatuz eskaerei erantzun diezaien lortzeko. Errepresio polizial eta militarra 2006ko uztailaren 25eko egunsentian hauteman zen presio-ekintzak gauzatu ziren puntuetako batean, eta horrek gogora ekarri zituen gobernuak hiru urte lehenago –2003ko abuztuaren 26an– sortutako informazio-blokeoa eta mehatxuak. Estatuko bazter guztietatik etorritako dozenaka mila pertsona bildu ziren errepublikako hiriburuan "Duintasunaren eta Erresistentziaren Martxa Handia" delakoan, edateko uraren eta saneamenduaren esparru-legearen indargabetzea eskatzeko –lege horrek udalekotzearen bidetik ateak irekitzen zizkion edateko uraren pribatizazioari–.

Mobilizazio hori estatuko hainbat lekutako erakunde komunitarioen eguneroko lanari lotzen zaio; lan horri esker lortu nahi dute komunitateak prest egotea 2003ko mobilizazio herrikoien ondoren gobernuak sartutako puntuei probetxua ateratzeko, edateko uraren eta saneamenduaren esparru-legearen testuaren zirriborroa zertxobait txukuntzeko. Aldaketa nabarmenenak hauek dira:

- Ur-zerbitzuren bat martxan jarri duen **komunitateko uraren batzordeari ematea nahitaez ur-zerbitzua**, betiere horrek zenbait baldintza tekniko betetzen baditu, eta

- **Udal-plebiszitu bat egin beharra** ur-zerbitzua eman aurretik.

Horretarako, erakundeak saiatzen dira ur-batzordeak eta ur-batzordeen sareak izaten, baliabide teknikoak partekatzeko eta, hala, legeak eskatzen dituen baldintzak gainditu ahal izateko eta biztanleriari informazioa emateko adi egon dadin plebiszitua eginez gero.

Horrenbestez, guztiei aukera berak eskainiko dizkien herrialde baten eraikuntza helburu izanda, La Esperanza topaketan bildutakoek belaunaldi berriei bere buruaz harro dagoen herrialde duin bat eman ahal izateko baldintzak ezartzeko konpromisoa hartu zuten. Hona hemen gure garairako ikasbidea: **ingurumena eta baliabide naturalak babestea eta kontserbatzea da, gaur egun, ahalmen handieneko deialdi-faktorea Erdialdeko Amerikako herrialdeetan herritartasuna eraikitzen laguntzeko, herri horiek zori berri bat merezi dute eta.**



Glosarioa

Afrikako, Karibeko eta Pazifikoko herrialdeak (AKP): Afrikako, Karibeko eta Pazifikoko 71 herrialde dira; antzina Europako kolonia izan ziren, eta Europako Batasunak lankidetza-harremana du haiekin. Harreman hori Lomeko Hitzarmenean oinarritzen da. Hitzarmen hori izan da, hain zuzen ere, Europako Batasunaren eta herrialde horien arteko lankidetza-modurik garrantzitsuena. Horren barruan sartzen dira hainbat akordio, merkataritza- eta laguntza-hornidurak barne hartzen dituztenak. AKP Afrikako 48 herrialdek, Karibeko 15 herrialdek eta Pazifikoko 8 herrialdek osatzen dute.

Egiturazko Doikuntza-Plana: zorraren krisiari erantzuteko Nazioarteko Moneta Funtsak eta Munduko Bankuak proposatutako politika-multzoari esaten zaio; helburua da krisiak eragindako ekonomiak egonkortzea eta zorraren zerbitzua ordaindu ahal izateko berregituratzea.

[www.debtwatch.org]

Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundea (ELGE): Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundea nazioarteko antolakundea da. Parisen sortu zen 1961ean, eta Europako Ekonomiako Lankidetzarako Erakundea (1948an sortu zen, Europaren berreraikuntza koordinatzeko Marshall Planaren arabera) ordezkatu zuen. Erakunde honetako 24 kideak Ipar Amerikako eta Europako enpresariak dira, baita Japonia, Australia eta Zeelanda Berrikoak ere. Kideei eginiko kontsulten bidez, ekonomia-hazkundearen eta lan-merkatuaren inguruko politika neoliberalak mantentzen ditu ELGA erakundeak. Beste helburuetako bat da ELGAko herrialdeek pobretutako herrialdeei ematen dieten laguntza koordinatzea.

[www.filosofia.net/materiales/deu/glosario.htm]

Enpresa Transnazionalak: enpresa transnazionalak: funtsean kapital nazionalarekin eratuta dauden enpresak dira, beren merkatuak zabaltzea lortzen dute nazioaren mugak gainditutz. Hainbat herrialdetan kokatzen diren enpresak dira. Enpresa hauek modu globaleko ekoizpen-sistema edo zerbitzuakegiteko modua sortu dute; sistema horretan, ekoizpen-gaitasuna zenbait herrialdetan banatuta dago, eta jatorrizko etxe nagusian planifikaturiko estrategiak jarraitzen dituzte.

[www.hegoa.ehu.es/congreso/bilbo/doku/bat/empresas_multinacionales.pdf]

G-8: herrialde industrializatu talde bat da, mundu mailan garrantzi politiko, ekonomiko eta militar handia duena. Honako herrialde hauek osatzen dute: Alemania, Kanada, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia, Erresuma Batua eta Errusia.

Garapenerako Laguntza Ofiziala: herrialde emaileetako estatuen administrazioek dituzten aurrekontuetako baliabide publikoak dira. Baliabide horiek munduko eremu pobreetako bizitza-baldintzak hobetzera bideratzen dira.

Garapenerako Laguntza Ofiziala. "Me pregunto qué es..."
izeneko Informazio-fitxen bilduma. 10 zenbakidun fitxa, Amycos 2005

Gutxien Aurreratutako Herrialdeak: Nazio Batuen Erakundeak izen hori ematen die egoera honetan dauden herrialdeei: 800 dolar amerikar baino gutxiagoko per capita BPGa dutenei; jaiotzean duten bizi-itxaropena, per capita kaloria-kontsumoa, eskolaratzea eta helduen alfabetatzea aztertuta giza baliabide urriak dituzten herrialdeei; ekonomiaren dibertsifikaziomaila baxua duten herrialdeei (hori adierazle konposatu baten arabera neurtzen da, eta hau du oinarrian: BPGko manufaktura-industria, industrian lan egiten duen biztanleria aktiboaren ehunekoa, merkataritzaren urteko per capita energia-kontsumoa eta esportazioen kontzentrazio-indizea). Gutxien aurreratutako herrialdeen lehen zerrenda 1971n onartu zen. Egun, 49 herrialde daude zerrenda horretan, eta 600 milioi pertsona baino gehiago bizi dira herrialde horietan.

[www.cinu.org.mx/temas/desarrollo/dessocial/ldc/paisesmadel.htm]

Kanpo-Zorra: kanpo-zorra da Hegoaldeko herrialdeek bankuei, Iparraldeko herrialdeei eta Finantza Erakunde Aldeaniztunei (NMF, BIRD eta eskualdeko bankuak) zor dieten dirua, haien gobernuek jaso zituzten maileguen ondorioz. Garatze-bidean dauden herrialdeen zorra igo egin da urteak igaro ahala, hainbat arrazoi direla eta. Batetik, zorra duten herrialdeek ordaindu behar dituzten interesak igo egin dira. Bestetik, zorra duten herrialdeek kreditu berriak eskatu behar izan dituzte aurrekoak itzuli ahal izateko, kaudimen-arazoengatik ordainketak atzeratu egin behar izan dituztelako. Garatze-bidean dauden herrialdeen kanpo-zorra hiru motatakoa izan daiteke: nazioarteko finantza-erakundeekin duen zorra, edo zor aldeaniztuna; beste herrialde batzuetako finantza-erakunde pribatuekin duen zorra, edo zor pribatua; eta, azkenik, beste estatu batzuekin duen zorra, edo alde biko zorra.

[www.odg.cat]

Merkataritza Askeko Ituna (MAI): merkataritza-ituna (aldebikoa edo alde anitzekoa), zenbait herrialdek onartu eta indarrean jarria, merkantzia- eta zerbitzu-merkataritza askeko eremu bat sortzeko helburuarekin egina. Arantzel txikiko edo batere gabeko merkantzia-zirkulazioa du xede, eta produkzio-sektoreen liberalizazioa eragiten du.

Milurtekoko Adierazpena: 2000n, Milurtekoko Goi-bilera esan zitzaiona egin zen Nazio Batuen New Yorkeko egoitzan. Goi-bilera hartan, compromiso batzuk ezartzea adostu zuten 189 estatuburuk, pobreziari, goseari, gaixotasunei, analfabetismoari, ingurumenaren degradazioari eta emakumeen aurkako diskriminazioari aurre egiteko; konpromiso horiek neurgarriak ziren, eta epe zehatzak zituzten. 2001ean, sistematizatu egin ziren, eta "Milurtekoko garapen-helburuak" izena eman zitzaien.

Mensajero aldizkaria, "Levántate contra la pobreza", 2006ko abendua

[www.millenniumcampaign.org]

Munduko Bankua: 1944an sortu zen nazioarteko erakunde hau, Bigarren Mundu Gerrak suntsitutako Europa berreraikitzen laguntzeko. Bankuak arrakasta lortu zuen zeregin horretan, eta, zenbait urteren ondoren, garabidean zeuden herrialdeez arduratzen hasi zen. Egun, 184 estatu kideren eskuetan dago, eta munduko pobrezia murriztea eta pertsonen bizi-maila hobetzea ditu helburu. Helburu hori interes baxuko maileguen, interesik gabeko krediduen

eta hezkuntza-, osasun-, azpiegitura- eta komunikazio-proiektuetarako eta abarretarako dohaintzen bidez gauzatzen da. Hauek osatzen dute Munduko Bankua Taldea:

- Berreraikuntza eta Sustapeneko Munduko Bankua; kreditu-gaitasuna duten herrialde pobreetara eta diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeetara bideratzen ditu bere jarduerak.
- Nazioarteko Garapen Elkartea (NGE) die.
- Hiru erakunde kide hauek: Nazioarteko Finantza Korporazioa, Inbertsioak Bermatzeko Alde Anitzeko Erakundea eta Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa.

[www.bancomundial.org]

Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA): merkataritza-korronteek erraztasun, aurreikuspen eta askatasun handienarekin zirkula dezaten ziurtatzeko herrialdeen arteko merkataritza arautzeaz arduratzen den nazioarteko erakundea. MMAren barruan ia 150 estatu daude, eta guztien artean munduko merkataritzaren % 97tik gora hartzen dute. 1995ean eratu zen, baina Bigarren Mundu Gerraren ostean, 1948an, eratutako Merkataritzari eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusiaren (GATT) ondorengoa da. MMAren hitzarmenak estatu kideei merkataritzaren alorrean eskubide garrantzitsuak bermatzen dizkieten kontratuak dira funtsean, eta, aldi berean, kontratu horiek direla medio, gobernuak behartuta daude beren merkataritza-politikak guztien onurarako hitzartuak izan diren mugen barruan mantentzera. MMAren erabakiak estatu kide guztien arteko adostasunez hartzen dira, eta gero tokian tokiko parlamentuaren berrespena behar dute.

[www.wto.org]

Nazio Batuen Erakundea (NBE): 1945ean sortu zen gobernu arteko erakundea da, eta helburu hauek ditu: nazioarteko bakeari eta segurtasunari eustea eta munduko herri guztietan giza eskubideak eta garapen jasangarria sustatzea –nazioarteko lankidetzarako eta alde anitzeko lankidetzarako mekanismoen bidez–. 192 estatu kide ditu.

Hegoa (2006) “Emakumeak munduko biltzarretan.
Tokian tokikotik globalera”

[www.un.org]

Nazioarteko Moneta Funtsa (NMF): alde anitzeko erakunde hau 1945ean sortu zen, nazioarteko moneta- eta finantza-sistemaren egonkortasuna zaintzeko (nazio-moneten arteko nazioarteko ordainketen eta truke-neurrien sistema da, herrialdeen arteko merkataritza egingarri bihurtuko duena). 184 herrialdek parte hartzen dute. Hauek dira NMFren jardueren helburuak: nazioarteko moneta-lankidetza sustatzea; nazioarteko merkataritzaren hedadura eta hazkunde orekatuari bide ematea; kanbioen egonkortasuna sustatzea; alde anitzeko ordainketen sistema ezartzen laguntzea; erakundearen baliabideak ordainketa-balantzetan zailtasunak dituzten estatu kideen esku jartzea –berme egokiekin–. Helburu horiek lortzeko, hiru mekanismo nagusi erabiltzen ditu NMFk: ikuskapena, laguntza teknikoa eta finantza-laguntza.

[www.imf.org/external/np/exr/facts/spa/glances.htm]

Parisko Deklarazioa: Parisko Deklarazioa ELGAko partaide diren herrialdeek egina da, Garapenerako Laguntzaren Eraginkortasunari buruz. Harmonizazioari buruzko Goi Mailako II. Foroan sortu zen (Paris, 2005), eta 2003an Erromako Deklarazioan adosturiko konpromisoak berretsi zituen, garapenerako lankidetza harmonizatzeari eta lerrokatzeari buruzkoak, hain zuzen ere. Deklarazio honek helburu batzuk ditu garapenerako laguntzaren eraginkortasuna hobetzeko, herrialdeen egoera desberdinetara egokitzeko eta aplikatzeko, adierazleak, egutegiak eta helburuak zehazteko. Oinarrizko bost printzipio ezartzen ditu: jabetzea eta lidergoa, lerrokatzea, harmonizatzea, emaitzen araberako kudeaketa eta baterako erantzukizuna.

[www.oecd.org/dataoecd/53/56/34580968.pdf]

Parisko Kluba: garatze-bidean dauden herrialdeei maileguak eman dizkieten herrialde garatuak biltzen diren foroa da. Espazio horretan, zorra duten herrialdeen ordainketa-arazoak taldean aztertzen dira, eta ez bi aldeen ikuspuntutik bakarrik. Topaketak 1956. urtetik aurrera egin izan dira, NMFk egindako maileguei begira, baina sarriago egiten dira 80ko hamarkadaren hasieran kanpo-zorra indarrez sartu zenetik. Merkataritza-bankuarekin dagoen zorra parte hartzen duten bankuen batzorde batekin negoziatzen da. Munduko Bankua eta NMF ez dira Parisko Klubeko kide, baina NMFk gero eta garrantzi handiagoa izan du merkataritza-bankuarekin zorra doitzeko planak garatzerako orduan. Parisko Klubarekin eta merkataritza-bankuarekin zorra birnegoziatzeko, zorra duen herrialdeak, nahitaez, egonkortasun-plan bat ezarri behar du NMFrekin.

[www.filosofia.net/materiales/deu/glosario.htm]

Pobreziaren Muga: munduan zenbat pobre dauden zehazteko, Munduko Bankuak ezarritako diru-sarreren zenbatekoari esaten zaio; pertsonako eta eguneko dolar batean finkatu da, 1985eko nazioarteko prezioak kontuan hartuta eta erosteko ahalmenaren parekotasuna kontuan hartzeko doituta (EAP). Beraz, pertsona bat pobrea dela esaten da pertsonako egunean dolar bat baino gutxiagoko diru-sarrera edo kontsumoa duen etxe batean bizi bada. Pobreziaren mugak nazioarteko konparazioak ezartzeko balio badu ere, ezinezkoa da herrialdeen artean konparazio zehatzak egitea ahalbidetuko duen pobrezia-adierazle bat sortzea. Pertsonako euro bateko muga diru-sarrera baxuko herrialdeetan ezarritako pobrezia-ataritik hurbil dago, baina diru-sarrera altuko herrialdeetan ezarritako pobrezia-ataritik oso behetik dago.

[www.worldbank.org/depweb/beyond/beyondsp/glossary.html]